

DATORRENA

Davoseko elitea, arriskua
demokraziarentzat ISIDRO ESNAOLA > 3

XABI IRAOLA, Sortu: «Herri libre
bat eta zoriontasuna ez dizkigute
etxeko sofara ekarriko» > 22

2023ko urtarrilaren 21a | XVII. urtea • 809. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA, EGUNEROKO OGI

GOBERNU AUTORITARIOEN KONTROLIK GABEKO BOTEREA EGUNERO GIZA ESKUBIDEAK
ZAPALDU ETA HERRITARREN BIZITZAK ZARTATZEN DITU. > 4 Jaafar ASHTIYEH | AFP



8



12



17



Human Rights Watch-en azken txostenari errepeaso 04

Norma Vera Salazar: «Hilketak errazago aitortzen dira sexu indarkeria baino» 08

Ingurunea deskubrituz: ikasleak hozitu Txikipedia loratzeko 12

Abian da Elkar 15. ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa 16

Klima aldaketa eragiten duen kutsadura, gaixotasun iturri 17

Xabi Iraola: «Erronka berrietara egokituko den herrigintza praktika bat behar dugu» 22

Pantaila txikian: Ezinbesteko telesail italiarrak 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



27

SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Davoseko elitea, arriskua demokraziarentzat
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Mindutako gorputzak
- 11 **Pello Otxandiano:** Atzean utzi beharreko argazkiak
- 15 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Borraska
- 21 **Iker Barandiaran:** Ipurtargiak
- 26 **Oihane Larretxea de la Granja:** Baloia eta makillajea
- 26 **Koldo Sagasti:** Adimenaren aztarnak
- 30 **Garazi Goia:** Pentsatzeko denbora galtzen ari gara



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Davoseko elitea, arriskua demokraziarentzat

Aste honetan World Economic Forumak urteroko bilera burutu du Davosen. Munduko klub eksklusiboenetako bat da. Bertan parte hartzen dute korporazio multinazional nagusietako arduradunek –adibidez, BlackRock funts putrearen zuzendari nagusiak– eta filantropia kapitalistaren ordezkari jatorrenek –horien artean Bill Gates nabarmentzen da–. «Lankidetza publiko-pribatuaren bidez munduaren egoera hobetzeko» foroaren asmoarekin koherentea da osaera hori.

Kontzeptu hori erabat normala bihurtu da hizkera politiko-administratiboan, baina ez da neutrala. Egia esan, sakontasun karga bat du publikoaren aurka. Sektore pribatuak hainbeste goraipatu duen lankidetza publiko-pribatua ez da berdinen arteko harremana, lehen begiratuan ematen duen bezala, baizik eta oso harreman desberdina, non alderdi publikoak baliabideak ematen dituen eta sektore pribatuak ideiak garatzeko konpromisoa hartzen duen eta onurak lortzen dituen. Marina Mazzucato ekonomialariak mai-suki erakutsi zuen harreman hori “The Entrepreneurial State” liburuarekin.

Harreman horretan kargen eta onuren banaketa desberdina bada, are nabarmenagoa da hori erabakien eremuan. Badirudi ekimena arlo publikotik pribatura abiatzen dela, baina praktikan sektore pribatua da publikoari garapen-ildoak zein izan beharko liratekeen adierazi, iradoki eta proposatzen diona. Izan ere, aholkularitza pribatuak, kontratu jakin batzuk lortzeko iruzurra egiteaz gain, beren azterketa eta gomendioekin sartu dira administrazio publikoen erdiguneraino, inolako oztoporik gabe. Enpresa horiek aholkuak ematen dituztenean, administrazio publikoak nola funtzionatzen duen ikasten dute. Gero, jakintza hori negozioak zabaltzeko eta enpresa-bazkideek administrazioari eskainiko dizkioten jardun-ildoak ira-

dokitzeko erabiltzen dute. Harreman horretan Estatuak ez du diseinuaren funtzioa betetzen: sektore pribatua jabetu da funtzio horretaz.

Jarduteko modu horrek ondorio garrantzitsuak ditu demokraziaren ikuspegitik. Arduradun politikoei kon-tuak eman behar dituzten bitartean, teoriarik behintzat aldizkako hauteskundeetan, beraiekin elkarreragiten duten sektore pribatuko ordezkariak ez dira hautatzen eta ez dute, beren akziodunen aurrean izan ezik, beste inoren aurrean konturik eman behar (eta hori ere ez du-te Bill eta Melinda Gatesena bezalako fundazioek).

Hortaz, lankidetza publiko-pribatua kontzeptua sek-tore pribatuak arlo publikoari, eremu amankomunari, egindako eraso besterik ez da. Arazoa ez da osasuna pribatizatzen ari direla, baizik eta sektore pribatua Esta-tuaren jabe egiten ari dela. Lortzen dutenean ez dute ezer pribatizatu beharko.

Arazoa ez da osasuna pribatizatzen ari direla, sektore pribatua Estatuaren jabe egiten ari dela baizik. Lortzen dutenean ez dute ezer pribatizatu beharko

Hainbestekoa da elite kapitalistaren boterea, non ez baita disimulatzen ere ahalegintzen. 2010eko txosten batean, Foroaren helburua haxe zela adierazi zuen: «Nazioarteko sistema lankidetza globaleko sistema zabalago eta multifazetikoago gisa birdefinitzea. Sis-tema horretan, gobernuen arteko lege-esparruak eta -erakundeak osagai nagusi gisa integratuta egongo di-ra, baina ez dira osagai bakarrik izango, eta, batzuetan, ezta erabakigarriena ere».

Davoseko eliteak ez du estatuaren kontrola baka-rrik nahi, munduko gobernuak lortu nahi du, baina aukeratuak izan gabe eta konturik eman behar izan gabe. •

ESKUBIDEEN URRAKETA

Protesta mugimenduak babestu beharra nabarmendu du HRWren txostenak

Gobernu autoritarioen kontrolik gabeko boterea giza eskubideen aurka-ko mehatxua da mundu osoan, Human Rights Watch erakundeak 2022ko txostenean salatu duenaren arabera. Bertan, Errusia, Txina, Afganistan, Iran edo Etiopiako erregimenak aipatzen diren arren, giza eskubideak aldarrikatzen dituztenen zinismoa eta neurri bikoitza ere deituta ditu HRW erakundeak.

Esaterako, Ameriketako Estatu Batuak Saudi Arabiarekin negoziatzen ari direla, nahiz eta Joe Biden presidenteak Riadi boikota egiteko deia egin zuen hautagaia zenean; Kaxmirren musulmanen aurka egindako erasoei buruzko ikerketak babesten dituela Pakistanek, baina bizkarra ematen diela Txinako uigurren aurkako balizko krimenei, eta herrialde askok harremanak estutu dituztela Indiarekin, nahiz eta bertako gobernuak Pekingo errepresioa imitatzen duen, HRWren txostenak dioenez.

«Afganiar eta siriar errefuxiatuek sentitu dute, benetan, neurri bikoitz hori», nabarmendu du Tirana Hassan HRWko zuzendariak.

Horietako asko «etxean ego-tera behartuta daude, lan egiteko eskubiderik gabe, bisa baliogabetuko zaien edo amai litekeen jakin gabe, eta seguru sentitzen ez diren leku batera itzuli beharko dute. Kontraste gogorra da Europak Ukrainako errefuxiatuei eman dien erantzunarekin alderatuta», esan du erakunde humanitarioko arduradunak.

HRWren arabera, nazioarteko komunitateak protesta mu-

 **GIZA ESKUBIDEAK / GAUR8**

Nazioarteko komunitateak gobernuen gehiegikerien kontrako protestak babestu behar dituela adierazi du Human Rights Watch erakundeak 2022. urteari buruzko txostenean. Bertan, gobernu autoritaroen kontrolik gabeko botereak giza eskubideak mehatxatzen dituela mundu osoan gogorarazi du.

gimenduak babestu behar dituzte gobernuen gehiegikeriei aurre egiteko eta erregimen horiei erantzuten dieten taldeei arreta politikoa eskaini behar die.

Hala, eskaera berezia egin die Myanmar edo Sudaneko buru militarrekin harremanak duten estatuei eta erakundeei, –AEBak, Europar Batasuna, NBE edo Asean, bestak beste– presioa egin dezaten. 2022an

izan diren krisiek –Ukrainatik Txina edo Afganistaneraino– «giza sufrimendu oldea utzi dute, baina aldi berean giza eskubideen arloan lidergorako eta estatuek eskubideak defendatzeko bide berriak» ireki dituztela uste du erakundeak.

Ukrainaren kasuan, esaterako, munduaren arreta jaso duela nabarmendu du erakundeak eta giza eskubideen sistemaren baliabideak abian jarri

direla uste du. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluak edo Nazioarteko Auzitegi Penalak ikerketak ireki dituztela gogorarazi du.

Giza eskubideen urraketa- ren zerrenda luzea den arren, hona hemen txostenean jasotzen direnetako batzuk.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK

AEBen aldeko joera izatea leporatzen zaio sarritan Human Rights Watch erakundeari. Txostenean zenbait kritika agertzen dira, ordea, Bidenek atzerrian hartutako estrategiak giza eskubideak urratzeko bideak irekitzen dituelako. Guantanamo espetxean oraindik ere 36 pertsona daudela ere nabarmendu du. Aldi berean, Egipto, Israel edo Saudi Arabiari laguntza militarra ematea salatu du.

ASIA

Txinaren kasuan HRWk salatu du ez duela inongo azalpenik eman «Ekialdeko Turkmenistanen (Xinjiang) milioi bat uigur eta beste musulman turkiar batzuk atxilotu eta torturatu edo haiei behartuta-ko lanak ezarri izanaz».

2021ean boterea eskuratu zuen Myanmarreko militar taldeak, bestalde, gehiegikeriak areagotu baino ez du egin. Ildo horretatik, krisiari erantzun bateratua emateko eskatu die HRWk inguruko herrialdeei (Indonesia, Malasia, Singapur, Filipinak eta Thailandia) militarren finantza-keta mozteko. «Urte hau kritikoa izango da», gaineratu du.

Gerra-krimenen eta gizate-riaren aurkako krimenen erantzule izatea leporatu die militarrei: «Masa-hilketetan, atxiloketa arbitrarioetan, torturan, sexu-indarkerian eta zi-

Myanmaretik ihes egindako rohinyak, Indonesian.
Chaldeer MAHYUDDIN | AFP



bilan aurkako erasoetan inplikaturik egon dira, arrisku handieneko komunitateei laguntza humanitarioa banatzea oztopatzeaz gain». Demokrasiaren aldeko 16.000 ekintzaile baino gehiago arbitrarioki atxilotu eta, gutxienez, 2.300 pertsona hil dituzte Myanmarren.

Afganistanen, emakumeen egoera izugarri okertu zen iaz, talibanak abuztuan boterera iritsi zirenean, neskatoen hezkuntza eragozteko, unibertsitate sartzeko debekatzeko eta lanaren eta askatasun sozialen arloetako lege gogorrekin. Eta disidentzia baketsua zapaltzen duten arauak eta politikak ere ezarri dituzte.

Fundamentalisten neurriek bazterrean utzi dituzte azken bi hamarkadetako lorpen asko. Halaber, errepresio gogorra egiten dute eskubideen aldeko manifestazioen aurka,

«Afganiar eta siriar errefuxiatuek sentitu dute, benetan, neurri bikoitz hori. Kontraste gogorra da Europak Ukrainako errefuxiatuei eman dien erantzunarekin alderatuta»

«Krisiek giza sufrimendu oldea utzi dute, baina aldi berean giza eskubideen arloan lidergorako eta estatuek eskubideak defendatzeko bide berriak ireki dituzte»

protestak bortizki zapalduz eta parte-hartzaile gehienak atxilotuz.

Bestalde, «Afganistango biztanleen %90ak baino gehiagok elikagai-segurtasunik eza pairatu zuen iaz, urte osoan», eta horrek bereziki eragin zien emakumei eta neskatoei, lan egiteko murrizketak ezarri baitzizkiete.

Iranen, errepresioaren ondorioak ere ezagunak izan dira irailean Mahsa Amini gaztea atxilotu eta hil zutenetik.

Protesten kontrako errepresioan «gehiegizko indar hilgarria» erabili, justifikaziorik gabeko kargupean ehunka pertsona espetxeratu eta epaiketa sumarioetan eta «larriki bidegabeak» diren epaiketan heriotza-epaiak ezarri izana salatu du HRWk, besteak beste.

Teheranen kontrako presioa areagotzeko eskatu die erakundeak, bereziki, «hego globaleko herriei».

Iranen 400 hildako inguru izan dira eta protestak geldiarazteko asmoz, hamasei heriotza-zigor ezarri dira. Horieta-tik lau exekutatu egin dituzte. Irango ekintzaileek salatu dutenez, epaiketak ateak itxita egiten dira, denbora errekorrean, torturapean lortutako aitopenekin eta kasu askotan abokaturik gabe.

HRWk salatu duenez, 15.000 manifestari baino gehiago atxilotu dituzte jendez gainezka dauden espetxeetan.

Bestalde, drogen inguruko delituekin lotutako exekuzio kopuruak ere gora egin du (gutxienez, 130). Emakumeek ere diskriminazio larriak jasaten dituzte ezkontzari, dibortzioari, herentziari eta guraso-aharari buruzko erabakiei dago-

kienez, eta gero eta feminizazio-kasu gehiago daude.

Hain ezagunak ez diren beste salaketa batzuk ere jasotzen ditu txostenak. Adibidez, Hego Koreako Gobernuak lan handia du aurretik «emakumeen eta neskatoen, etorkinen, atzeritarren, adinekoen, desgaitasuna duten pertsonen eta LGBTI kolektiboko herritarren aurkako diskriminazioari aurre egiteko», adierazi du HRWk.

Yoon Suk-yeol presidente kontserbadorearen Gobernuak Ipar Korean gertatzen diren giza eskubideen urraketez arduratzen da, baina etxean bertan ere badu zeregina.

GOLKOKO HERRIALDEAK

Era berean, Golkoko herrialdeetan, hala nola Saudi Arabian, Qatarren edo Arabiar Emirerri Batuetan, gehiegikeriek, errepresioak eta diskriminazio praktikak jarraitzen dute, bereziki emakumeekin.

Saudi Arabiako agintariek disidente baketsuak eta giza eskubideen aldeko ekintzaileak atxilotu dituzte eta hainbat hamarkadako espetxe-zigorra ezarri diete.

«Atxiloketa-zentroetako abusuzko jardunbidea, hala



Polizia Tunisian, presidentearen aurkako protesta batean. Fehti BELAID | AFP

HERIOTZAK MIGRATZAILEEN ITZULKETEN ONDORIOZ

Espainiar estatuan, «bero-beroan egindako itzulketen» ondorioz gertatutako etorkinen heriotzak gogorazti ditu Human Rights Watch erakundeak. Ekainean, gutxienez, 23 pertsona hil ziren Melillako mugan. «Espainiaren kudeaketak eta etorkizunean gerta daitekeenak kezkatzen gaitu», esan du. «Garrantzitsua da Espainiak Marokori pertsonarik ez itzultzea, asilo baldintzak oso ondo aztertu ez baditu», gaineratu du. Pobreziaren igoeraz ere kezka azaldu du, biztanleen %27,8 pobrezia arriskuan baitago.



Sri Lankan, gobernuaren aurkako manifestazio batean, moje budista bat poliziaren ur-kanoitik ihesi. Ishara KODIKARA | AFP

nola tortura eta tratu txarrak, espetxeratze arbitrario luzeak eta lege-prozesu argirik gabe ondasunak konfiskatzea oraindik ere orokorrak dira», dio HRW-k

Adibidez, martxoan, agintari saudiarrek 81 gizon exekutatu zituzten –exekuzio handiena hamarkada luzez–, nahiz eta berriki heriotza-zigorren erabilera murrizteko konpromisoa hartu duten. Iragarritako lege-erreformak hutsean geratu dira. Emirerrien kasuan ere, lege sorta zabalari zuzenketak egin zizkioten 2022an, baina herrialdeak disidenteen aurkako errepresio eta zentsura kanpaina kezkagarriarekin jarraitu du.

Qatarren, FIFAre Munduko Txapelketak munduaren begiak erakarri ditu eta langile migratzaileek herrialdean jasaten dituzten abusu larriak azaleratu dira. Egindako lan-erreformek oso eragin txikia izan dute, berandu sartu direlako indarrean eta gutxi aplikatu direlako.

Lama Fakih HRWko Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako zuzendariak adierazi duenez,

2022an Ekialde Hurbilean, oro har, «errepresio sistemakoak araua izaten jarraitu zuen», baina itxaropena agertu zuen «eskubideak eskatzeko antolatzen diren» tokiko gizarte mugimenduekin, batez ere Iranen eta Tunisian.

IPAR AFRIKA

Kais Said Tunisiako presidentearen botere kontzentrazioak trantsizio demokratikoa «atrofiatu» du, HRWk salatu duenez. «Agintariek neurri errepresiboak hartu dituzte oposizio gileen eta kritikoen aurka», batzuetan «presidentea, segurtasun indarrak edo beste funtzionario batzuk publikoki kritikatzeko».

«Israelgo agintarien praktikak, juduek palestinarrekiko duten nagusitasunari eusteko politika, apartheid eta gizateriaren aurkako krimenen parekoak dira»

Qatarren, FIFAre Munduko Txapelketak munduaren begiak erakarri ditu eta langile migratzaileek herrialdean jasaten dituzten abusu larriak azaleratu dira

Saidek, 2021eko uztailaren 25etik, botere osoz gobernatzen du eta eskubideak bermatzeko tresnarik gabeko sistema presidentziala ezartzeko konstituzio berria proposatu du.

Aljeriari buruz, aktibistak, abokatuak eta kazetariak auzipetzen jarraitu duela dio HRWk, baita gizarte zibileko erakundeak desegiten ere. 250 pertsona inguru atxilotuta zeuden, urrira arte, «protesta baketsuetan parte hartzeagatik, aktibismoagatik edo adierazpenagatik».

Aljeriako agintariek gero eta gehiagotan erabiltzen dituzte terrorismoarekin lotutako karguak giza eskubideen defendatzaileak, aktibistak eta kritikoak epaitzeko.

Egiptoko Gobernuak zuritze-kanpaina bati ekin zion, batez ere COP27 Klimaren Goi Bileran, eta Al Sisi presidentek 2022 «gizarte zibilaren urtea» izendatu zuen, oinarritzko askatasunak murrizten dituzten legeak indargabetu gabe eta errepresioarekin jarraitu duen arren.

«Egiptoko kartzeletan milaka pertsona daude atxilotuta aurrekari politikoengatik, eta gobernuak isilpean gordetzen du haien kopurua. Barne Ministerioako poliziak eta Segurtasun Nazionaleko agenteek oposizio gileak indarrez desagerrarazten jarraitu dute. Kartzelako agintariek eta Egiptoko segurtasun indarrek tratu txarrak ematen dizkiete atxilotuei, baita sexu-indarkeria sistematikorekin ere, ia inpunitate osoz degradatzeko», HRWren arabera.

PALESTINA

Palestinaren kasua giza eskubideen urraketen adibiderik ezagunenetakoa izanik, in-

punitate handienekoa ere bada. Human Rights Watch erakundeak nabarmendu duenez, Israelgo koalizio gobernuarekin palestinaren aurkako errepresio gordina areagotu egin da.

«Israelgo agintarien praktikak, judu israeldarrek palestinarrekiko duten nagusitasunari eusteko politikaren zati gisa abiarazitakoak, apartheid eta gizateriaren aurkako krimenen parekoak dira», adierazi du erakundeak. Bere txostenak Gazaren aurkako erasoek 49 palestin hil zituztela dio, eta oraindik ere blokeoak bi milioi pertsonaren mugimendu askatasuna mugatu eta bizitza hobetzea galarazten duela.

Zisjordanian ere operazio militarrek, 2022an, 147 palestinar hil zituztela jasotzen du txostenak: 2005etik hildakoen kopuru altuena.

Bestalde, «atxikoleta administratibopean» (kargurik eta epaiketarik gabe) dauden presoek kopurua azken bi hamarkadetakoa altuena da –866 preso–.

Halaber, «gerra krimenez» jo du Israelek Zisjordanian okupatutako kolonietara lekualdatzea sustatzea. Aldi berean, 2022an, palestinaren 851 etxebizitza suntsitu zituzten eta beste mila suntsitzeko bai-mena eman zuen Israelek.

AFRIKA

Afrikan, gutxienez, hamabost gatazka armatutan –Kongoko Errepublika Demokratikokoa, Kamerungoa, Etiopiakoa, Mozambikokoa, Malikoa, Burkina Fasokoa eta Hego Sudanekoa barne–, gobernu indarrek edo estatuz kanpoko talde armatuek zibilen aurkako abusuak egin zituzten 2022. urtean, HRWren arabera.

Carine Kaneza Nantulya HRWren Afrikarako zuzendariordeak «krisi horietako milioika biktimei justizia emateko indarrik ez egitea» aurpegiratu dio Afrikako Batasunari.

Etiopian, Tigray iparraldeko eskualdeko matxinoen eta Gobernu zentralaren arteko gerrak inpaktu suntsitzailea izan du populazio zibiletan.

HRWk M23 mugimendua ere gaitzetsi du, «Ruandaren babesarekin, Kongoko Errepublikak Demokratikoko ipar-ekialdean izugarrikeriak» egin dituelako.

Mozambikeko iparraldean, mehatxu jihadistaren ondorioz, milioi bat pertsona inguru lekualdatu dira lau urtean.

Arazo horrek Saheleko herrialdeak ere astindu ditu, hala nola Mali, Burkina Faso –jihadismoaren ondorioz bi estatukolpe izan zituen 2021ean– eta Niger, besteak beste. Mali «islamiar matxinoen hazitegia da (...) eta gainezka egin du».

«Sahel eskualde osoa dago arriskuan», ohartarazi du erakundeak. Talde jihadistien erasoek zein segurtasun indarren errepresaliek zibilen heriotzak eragin dituzte.

Gainera, GKEak dio trantsizio gobernu batzuetako agintariek gogor zapaldu dituztela kritika eta disidentzia politikoko baketsua, Txaden eta Sudanen gertatu den bezala.

Hala ere, aurrerapenak ere gertatu ziren 2022an, ankerkerien biktimen justiziari begira: urrian, Afrika Erdiko Errepublikako Zigor Auzitegi Bereziak kartzela zigorra ezarri zien hiru matxinori gerra-krimenengatik eta gizateriaren aurkako krimenengatik.

LATINOAMERIKA

Latinoamerikako giza eskubideen egoera «azken urteotako

okerrenetakoa da», HRWren analisiaren arabera.

«Zuzenbide-estatua oso larri hondatu da eskualde-mailan», adierazi du eta adibide gisa «hauteskunde-sistemen, Botere Judizialaren, prentsa independentearen eta gizarte zibilaren aurkako eraso zuzenak eta frontalak» jarri ditu. «Demokratikoki aukeratutako liderrek ere demokraziaren zutabeak arriskuan jartzen dituzte», gaineratu du.

Erregimen oso autoritarioen –Honduras edo Brasil– amaierarekin edo gobernu batzuen erabakiak geldiarazi dituzten auzitegien erabakiekin «erresilientzia demokratikoa» seinaleak izan diren arren, «garaipen pirrikoak izan dira».

Eskualdeko erronka kronikoak «izugarriak» dira: pobrezia (Latinoamerikako biztanleriaren heren bat pobrezian bizi da), aberastasunaren banaketa desberdina (biztanleriaren %20ak diru-sarrera globalen erdia bereganatzen du), klima-mehatxua eta baso-soiltzea, eta eskualde osoan indarkeria-maila handia, hain zuzen. Arazo horiek larriagoatu egin ziren zenbait herrialdetan 2022. urtean: Haitin, esaterako.

Arazo horien baturak indarkeriatik edo pobreziatik ihes egin nahi duten milioika pertsonaren exodoa eragin du: egoera bereziki larria da Venezuelaren (7,1 milioi desplazatu) eta Erdialdeko Amerikaren kasuan.

Kolonbian, indarkeria modu berriak agertu dira, eta biolentzia bake prozesuaren aurreko mailara iritsi dela dio HRWk. Giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, FARCEko gerillari-ohiak eta beste aktibista batzuk dira jopuntuak.

Egiptoko Gobernuak zuritze-kanpaina bati ekin zion 2022an, batez ere COP27 Klimaren Goi Bileran, oinarritzko askatasunen murrizketekin eta errepresioarekin jarraitu zuen arren

Mali «islamiar matxinoen hazitegia da (...) eta gainezka egin du. Sahel eskualde osoa dago arriskuan». Jihadistek zein segurtasun indarrek zibilen heriotzak eragin dituzte

2022. urtean, urrira bitartean, giza eskubideen 182 defendatzaile hil zituzten.

Txilen, Polizia Nazionalaren erreforma oso poliki egiten ari dela eta abusuak egiteko esparrua irekita dagoela nabarmendu du erakundeak. Kubak oposizioak kartzelatu dituela ere salatu du eta, bestalde, irla isolatzeko AEBen politikak, Bidenek jarraitu duenak, porrot egin duela gaineratu du. El Salvadorren, Nayib Bukele presidenteak instituzio

demokratikoak bereganatzeko hartutako neurri gogorrak gogorarazi ditu txostenak eta salbuespen egoeran abusuak izan zirela.

Nikaraguan, bestalde, «kritikoen, kazetarien eta giza eskubideen defendatzaileen kontrako errepresio sistematikoa» salatu du HRWk.

Azkenik, indarkeria eta zigorgabetasun mailak «errekor historikoetara iritsi dira Mexikon, 100.000 biztanleko 28 homizidiekin».

Londresen, Irango errepresioaren eta exekuzioen kontrako protesta bat.
Justin TALLIS | AFP



«Sarraskiak edo hilketak errazago aitortzen dira sexu indarkeria baino»

Unibertsitateko irakaslea, giza eskubideetan eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan aditua, eta gatazka armatuen eta genero gaien ikertzailea, Norma Vera Salazar kolonbiarrak Karibeko kostan paramilitarren sexu indarkeria pairatu duten 10.000 biktimari baino gehiagori lagundu die azken bi hamarkadetan. Magdalenako Emakumeen Sarearen sortzaile eta presidentea ere izan zen 2013 eta 2018 artean.

Hernan Giraldo Serna paramilitarraren kontrako prozesu judiziala abiatu zuen. Hogeita bost urtez Sierra Nevada de Santa Marta ingurua kontrolpean izan zuen Giraldo Sernak. 1.500etik gora arma gizon izan zituen bere esanetara. Droga trafikoaren ibilbideak kontrolatzen zituen. Hamalau urte baino gutxiago zituzten 201 neskato bortxatu zituen. Preso zegoela ere bost adingabe bortxatu zituen espetxean bertan, dokumentu faltsuekin sarrarazi ondoren. Talde paramilitarrekin abian ipini zuen prozesuaren ondoren, Justizia eta Bakea Legea sortu zuen Kolonbiako Gobernuak. Giraldo Sernak legeari heldu zion kartzela zigorra arintzeko, baina soilik 33 bortxaketa aitortu zituen. Kopurua faltsua zela frogatu zuen Vera Salazarrek, zortzi urtez egindako ikerketaren ostean. Fiskaltzak gizateriaren aurkako krimeneztat jo zituen delituak.

Freytter elkartearen eskutik Euskal Herrian izan da, gataz-

NORMA VERA SALAZAR

EKINTZAILE KOLONBIARRA

Hernan Giraldo paramilitarrak adin txikiko 201 neskato bortxatu zituen. Norma Vera Salazar giza eskubideen defendatzaileak delitu horiek denbora luzez ikertu ditu.

Ainara Lertxundi



karen testuinguruan gertaturiko sexu-krimenak azalarazteko. Gasteizko Legebiltzarrean egon zen, eta Euskal Herrira migratutako emakumeekin elkartu zen. Gaur8rekin egindako elkarrizketan nabarmendu duenez, «errazagoa da sarraskiak edo hilketak aitortzea sexu indarkeria baino».

Bi hamarkada baino gehiago eman dituzu Magadalena departamentuan paramilitarismoa eta sexu biolentzia gerra arma gisa ikertzen. Zer ezagutari hartu zituen fenomeno horrek Karibeko kostaldean? Paramilitarismoa erantzun kontrainsurgente gisa hasitako fenomeno da. Eskualdeetan antolatu zuten, abeltzain eta eskuin muturrari lotutako sektore ekonomikoen laguntzaz. Babes horren ondorioz, egitura horiek sendotu egin ziren eta lurraldearen kontrola izan zuten, eta horrek legez kanpoko beste jarduera batzuk ekarri zituen, hala nola narkotrafikoa, lurrak desjabetzea, lekualdatzeak edo gizateriaren aurkako krimenak. Magdalenaren kasuan, paramilitarismoaren eragina oso bortitza izan zen. Kolonbiako Kariben gertatu ziren 333 sarraskietatik 123 Magdalenan izan ziren. Desplazamendu masibo handiena, 11.000 pertsonena, Santa Martan gertatu zen, departamentuko hiriburuan, non 1.200 desagertu baino gehiago zenbatu ditugun. Hernan Giraldo Sernak 14 urtetik beherako 200 adingabe baino gehiago bortxatu zituen: sexu indarkeria gerra arma bilakatu zen. Emakumearen gorputza

gerra arma gisa erabili zuen seme-alabak izateko eta odol-kidetasunaren bidez lurraldearen kontrola bermatzeko. Berrehun seme-alaba baino gehiago izan zituen. Munduko gatazka modernoetako sexu harrapakari nagusia da.

Zein faktorek ahalbidetu zuten sistematikotasun hori?

Alde batetik, lurraldean hain hedatuta dagoen misoginia. Bestetik, gorputzaren erabilera eta sexu krimenak ikusezin bihurtzea ahalbidetu dute bortxaketa masibo horiek. Faktore horiei konplizitate instituzionala gehitu zaie; “lehen gaueko eskubidea”, latinez “jus primae noctis” esaten zitzaion hori, baliozkotu egin du erakundearen konplizitateak. Garai batean, 1.500etik gora gizon izan zituen bere kargu Giraldo Sernak. Eskualdea kontrolatzen zuen, baita Ameriketako Estatu Batuetara kokaina bidaltzeko ibilbideak ere. Narratibak eraikitzeak gaitasuna zuen; neskatoak gurasoek beraien entregatzen zituztela esaten zuen. Gezurra zela frogatu nuen; gurasoak presionatu egiten zituzten. Gatazkaren baitan, erresistentzia ezinezkoa zen. Paramilitarismoaren dinamikek ez zuten inolako erresistentzia gunerik ahalbidetzen. Sexu krimenak ikusezin bihurtu zituzten; hori da sakoneko arazoa.

‘Zulagailua’ ezizenez ezaguna zen Giraldo Serna. Horrek nolabaiteko eskubidea ematen zion neskatzak indarrez desloratzeko. Eta toki jakin batzuetan ‘Giraldoren emakumea’ izatea duintasun handikotzat

jotzen zuten. Bortxaren fruitu, 200 bat seme-alaba izan zituen. Helburua familia leinua-
ren bidez lurraldearen kontro-
la mantentzea zen.

Errazagoa da gatazkaren bai-
tan sarraskiak eta hilketak ai-
tortzea krimen ikusezin bat ai-
tortzea baino. Giraldo Sernak
33 bortxaketa soilik aitortu di-
tu. Guk, berriz, 201 bortxaketa
ikertu ditugu. Barranquillan
eta Medellinen preso egonda,
adin txikiko bost neskato bor-
txatu zituen espetxean ber-
tan. Bere alabak izango balira
bezala sartu zituzten.

**Konplizitate sare bati buruz
ari gara, beraz.**

Horixe. Estatu aparatu krimi-
nal batek balioztatu zuen hori.
Prokuradoretzak esku hartu
zuen, paper faltsuak eman ziz-
kien eta Espetxeetako eta Kar-
tzeletako Institutu Nazionalak
(INPEC), dokumentazioa fal-
tsua izan arren, espetxean sar-
tzen utzi zien eta adingabeko
neskato horiek espetxean ber-
tan bortxatzea baimendu
zuen. Gaia lerro mehe batzue-
tatik pasatzen da. Lehenenik,
krimen sexualak ikusezinak
direla –inork ez du horretaz
hitz egiten eta ez ditu aitortu
nahi –. Bigarrenik, Estatuak ez
zuela bere eginbidea zintzo
bete, Giraldo Sernak aitortu zi-
tuen 33 krimenetatik haratago
ez baitzuen inolako ikerketa-
rik egin.

Eta hirugarrenik –eta alda-
tzeko konplexuena–, gizarte
zibilak sexu indarkeria nor-
malizatu duela nolabait. Nor-
maltzat jo da gizonak neska-
toekin oheratzea. Oso zaila da
hain errotuta dauden gizarte
egiturak eta kultur logikak
eraldatzea eta erakundeek be-
ren eginbeharra betearaztea.
Misoginia eta indarkeria maila
handia dago lurraldean. Ma-



Argazkiak: GAUR

IBILBIDEA

Norma Vera Salazar
unibertsitate irakaslea
eta giza eskubideetan
aditua da. Kolonbiako
gatazka armatua ikertu
du: zehazki, paramilitarren
sexu biolentzia Santa
Martako Sierra Nevadan.
Emakumearen gorputza
arma gerra gisa erabili
izana salatu du.

txismo estrukturalak ez die le-
kurik uzten emakumeen esku-
bideak eta duintasuna aintzat
hartzen dituzten diskurtsoei.

**Zerk bultzatu zintuen ikerke-
ta hau egitera?**

Ni neu sexu indarkeriaren bik-
tima izan nintzen, ez gatazka
armatuaren testuinguruan,
osaba baten eskuetan baizik.
Sexu indarkeriaren eta familia
barruko indarkeriaren bikti-
mak eta lurrak erreklamatzen
dituzten 10.000 emakume
baino gehiago ordezkatu di-
tut. Ikerketa hau katarsi per-
sonal moduko bat izan da;
norbanako erreparazio bat,
alegia. Sexu indarkeriaren bik-
timentzat, krisi pertsonalak

gainditzeko eguneroko ariketa
da bizirik irautea. Bilaketa per-
sonalerako prozesua izan da
ikerketa hau; nik izan ez nuen
justizia eman nahi izan diet
biktimei. Bortxaketa ez da soi-
lik gorputzarena; arimarena
ere bada.

**Nolakoa izan zen emakume
horienganako hurbilketa?**

Hernan Giraldo Serna bortxa-
tzaile sistematiko bat zela guz-
tion ahotan zegoen. Ezagutza
publikokoa zen, baina inor ez
zen ausartzen gertatzen ari ze-
na salatzen. Berrehun biktima
elkarriketatu nituen. Haiekin
mintzatu nintzen. Zailena
haien burua biktima gisa ai-
tortzea izan zen. Izan ere, as-

korentzat ‘ohorea’ zen Giraldo
Sernaren ‘emakumea’ izatea.
Modu anonimoan bildu ni-
tuen lekukotasunak. Oso zaila
da sexu biolentziari buruz hitz
egitea, estigma oso handia
baita.

**Nola baloratzen duzu Bakera-
ko Jurisdikzio Berezia?**

Oso positiboa da. Ikusezin ge-
ratu diren krimenak mahai-
gaineratzeko eta biktimentzat
justizia lortzeko baliagarria
izan daiteke. Sexu krimenei
beste ikuspegi batetik heldu
behar diegu. Gerraren beste
dimentsio batzuk ikusteko,
pedagogia egiteko eta ez erre-
pikatzeko neurriak sortzeko
aukera ematen digu.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Mindutako gorputzak

Gabonetan aspaldi ikusi gabeko arkitektura ikasle ohi batekin egin dut zita. Arkitektura unibertsitateko berritasunak eta beste hainbat hizkizkizkiz elkarbanatu dizkiot. Irakasle, ikasle berri eta ikasle izandakoen nondik norakoak ere solastatu ditugu. Eta orduan, lagunak, begirada ikasle garaiko iraganean jarria zuela, oso sakonetik ateratako esaldia bota du. «Arkitektura ikasketak egin dituzten hainbat ikasle mindutako gorputzak dira egun». Pausa bat sortu da hizketaldian eta bihotza izoztu zait.

Gabonetan, aurten izan ditudan erasmus ikasleekin ikasgaiaren itxiera egin dut. Europako ikasleek Donostian zer-nolako zailtasunak izan dituzten, jatorriko ikas-ereduekiko desberdintasunak eta arkitekturaren begiradan leku amankomunak komentatu dizkirate. Konfiantzazko hizketaldian ginen, eta orduan, Poloniako ikasleak gaineratu du: askatasun gutxiko espazioak dira arkitektura eskolako ikasgelak. Eta Alemaniakoak berretsi dio, eta Greziakoak, eta Belgikakoak, eta italiarrak, eta euskaldunak. Gorputz giarrak tentsioan dituztela ari direla eraikinak pentsatzen eta proposatzen, diote. Norberaren diseinua eta pentsaera irakaslearen mandatuan nola enkajatu den beldur dira. Ia onartua izango den haien iritzia.

Inpaktaturik utzi nau konfesioak; ez da berria, nire esperientzia antzerakoa delako, baina zirrara sortzen du ziurtatzeak arkitektura irakaskuntzako pedagogia zaharra Europan zehar zabalduta dagoela. Hemen eta han, arkitekturako irakaskuntza dogmatikoa praktikatzen dela, “ikuspegi on”

baten existentziara bideratutako irakas-ereduaren pean. Arkitektura unibertsitatean ikasleek beraien diseinulanen prozesua jarraitzeko klaseei “zuzenketa” deitu izan diegu historikoki. “Gaur zuzentzera noa” esaldia rekin hezi gara eta hezi ditugu. Atera kontuak.

Gabonetako bi aitorpenek sufrimendu eragileak den egoera deskribatzen dute. Milaka begirada posible eta helduleku zabala dituen arkitekturaren egitekoa pentsamolde bitarrerara sinplifikatzean, diseinu bat ondo edo txarto dagoela sinestean, pentsatzeko esparrua zeharo mugatzen da eta arkitektura ona egiteko modu bakarra dagoela irakasten da. Eta emaitza, ikasle atrofiatuak sortzea edo bide pertsonal eta propio bat eraikitzeke tresna gutxi dituzten indibiduok

mundu profesionalera bideratzea. Batzuek heldutasuna lantzeko aukera izan ez duten proto-arkitekto bezala lizentziatura eskuratuko dute eta beste hainbeste ikasle bidean geldituko dira, irakaskuntza metodoak sortu dezakeen eskizofrenia jasan ezinik eta psikiatria bulegoetan ate joka.

Ez da ahuldade pertsonalitatearen akatsa, baizik eta irakas-ereduaren — eta irakasleen — baldartasuna. Sormena lantzeko eta arkitekturaren bidez pentsatzeko leku izan beharko luketen unibertsitateko gelek akats egiten dute. Arkitektura ona egin dezaketen ikasle gorputzak egon arren, beste batzuek oinazea sorrarazten bada, zeozer berraztertu beharrean gara. Pedagogia zaharra gaindituko lukeen pentsamendu kritikoan hezteko, irakasleok barne-lanketa mardula egiteke dugu aurrena. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Atzean utzi beharreko argazkiak

Aste honetan oharkabeen pasatu den argazki bat hartuko dut hizpide: astelehenean, Mondragon Unibertsitatean, "Hirekin" proiektuaren aurkezpena. Argazkian Mondragoneko arduradunak, Mondragon Unibertsitatekoak, Gipuzkoako diputatu nagusia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailtako arduradunak, Aitor Esteban eta Andoni Ortuzar. Zein mezu uzten du argazki horrek? Instituzioa berdin alderdia, nazioa berdin alderdia. Argazki hori desastre bat da ikuspegi demokratikotik. Eta larriena da zein naturalizatuta dagoen, hainbeste non oharkabeen pasatu den eta Mondragon Unibertsitateko arduradunek ez dioten arazorik jarri. Alderdia eta erakunde demokratikoak bat eta bakarra balira bezala irudikatzen direnean, pluraltasun demokratikoa komun zulotik behera joaten da, eta horrek alderdi bakarreko erregimen baten antz handiegia du. Denok gara (nola-bait) bat, eta hemendik kanpoko anomalia bat da.

Argazki hori sintoma bat da, atzean ezkututzen du hirugarren mailako herri egiten gaituen errealitate mingarri bat: urte gehiegiz instituzio nagusiak gobernatu dituen alderdiaren bueltan eratu den botere sarea, sare klientelar bat, alderdiarengandik hurbil ibiltzeak mesede egiten dizula. Eta hain da praktika hedatua ezen normaltzat jotzen baita. Asteleheneko ekitaldi horretan parte hartu zuen inork ez du adierazi desadostasun edo deserosotasunik. Hain da praktika hedatua ezen hizpide dugun alderdiak berak, egin berri duen entzuketaren prozesuaren ondoren, publikoki aitortu duen uste hedatua dela euskal gizartearen lagunkeria aritzen dela.

Lagunkeria horrek bidea errazten die De Miguel bezalako ustelkeria kasuei, sare klientelar hori lur ongarritua da ustelkeria kasuak eman daitezen. Izan ere, demokraziak eskatzen dituen kontrapisu eta kontrol mekanismo sozialak desaktibatu egiten ditu. Halako joko-zelaian

lankidetzaren publiko-pribatu goretziak ez ditu onenak aukeratzeko, baizik eta bueltan dabiltzanak, eta horrek kalte egiten digu herri gisa: talentua galtzen da, exigentzia maila beheratzen da, eztabaida politikoa pobretu egiten da, gobernantza eredu aurreratuek eskatzen duten kultura politikotik urruntzen gara, finean herri gisa ditugun gaitasun politikoak kamustu egiten dira.

Eta nago honako hau faktore giltzarria dela azken urte luzeetan Euskal Herriaren mendealdean etorkizuna prestatzeko egon den atrofia estrategikoari dagokionez. Oso argi, iragan hamarraldian ez da bisio estrategikorik izan etorkizuna prestatzeko, eta horren adibide on bat aste honetan bertan ikusi dugu: Arantxa Tapiak irratian iragarri du energia berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) ez dela bi urte baino lehen onartuko. 2009an Eusko Legebiltzarrean aho batez onartu zen LPS berri bat egin behar zela proposatzen zuen mozioa.

Iragan hamarraldian ez da bisio
estrategikorik izan etorkizuna prestatzeko.
Atrofia estrategikoa egon da

2018an Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen LPSa egiteko. Bada, legegintzaldia pasatuko da LPSrik gabe.

Trantsizio energetikoaren olatua etorriko zela aurreikustekoa zen aspaldi. Orain energia berriztagarriekin lotutako proiektu saldoa dator lurraldera eta ez dago euskal ekonomia deskarbonizatzeko estrategiarik, ezta lurraldea ordenatzeko tresnarik ere. Esango nuke trantsizio energetikoa adibide argia dela: hamarraldi bat galdu dugu, ez dugu jakin etorkizuna prestatzen.

Hainbat faktore egongo dira tartean. Baina aipatu argazki horrek atzean ezkututzen duena bada horietako bat. Birgaitze demokratiko sakon bat behar dugu Euskal Herriaren alde honetan, ezinbestekoa zaigu, besteak beste, etorkizunari baldintza egokietan aurre egiteko. •

INGURUNEA DESKUBRITUZ

Ikasleak hozitu Txikipedia loratzeko

2021-22 ikasturtean Gipuzkoako ikastetxe askotan udaberria sekula baino gehiago loratu zen. Ez eguraldiak hala eragin zuelako, baizik eta irakasleen eta ikasleen begiek inoiz baino atentzio handiagoarekin erreparatu ziotelako inguruneari. Landarez eta lorez beterik zegoen inguruko zelai, belaze, belai edo eskola inguruko lorategi txikiari. Eta hor hasi ziren zalantzak, zurtoin, hosto, hazi, fruitu eta lore, guztiak ala guztiak ezberdinak zirela ohartu zirelako eta ikusi zutelako, ikusi, itsutasuna noraino iristen den. Landare itsutasuna ikusi (eta sentitu) zuten, alegia.

Eta hala, Eskolako Agenda 2030aren haritik, Gipuzkoako hainbat ikastetxe hasi ziren lantzen zelai batek ekosistema moduan duen garrantzia, eta landareak bere bakardadean egin dezakeen funtzioa, edota espezie bakoitzak baduela bere txokoa, hezetasun, argitasun, lurzoru eta beste hamai-ka faktoreren arabera aldatzen dena. Ikusi zuten inguruko zelai guztiak ezberdinak direla, eta gizakiaren erabilerak ere baldintzatzen duela horien izaera. Beraz, gizakiaren arabera aldatzen dela paisaia ere, eta paisaiak berak baldintzatuko duela, gero, zein fauna espezie biziko diren bertan. Zenbat eta landare ezberdin gehiago izan, orduan eta biodibertsitate handiagoa izango da ordura arte ezkutuan pasatu diren zomorro txikien munduan. Aniztasuna luparekin ere beha daitekeelako.

Gipuzkoako 50 ikastetxek baino gehiagok babesgune txi-

 **HEZKUNTZA /** Iñaki Sanz-Azkue

Urtarrilaren 26an Ingurumen Hezkuntzako Nazioarteko Eguna da. Sarri azpimarratzen da hezkuntzan, hainbat kontzeptu eta gai jorratzeko, ezinbestekoa dela material egokia sortzea eta hori eskuragarri izatea. Material egokia, eta euskaraz, ikasleek erabiltzeko moduan egon dadin. Denon eskura, erraz iritsi gaitezen. Horiek sortzeko bidean, alabaina, izaten dira trabak eta ezinak, denborak infinituraino atzeratzen dituzten proiektuak, eta beraz, material faltak zenbait eduki lantzeko nagia eragiten du. Txikipediak eta Ingurugelak buelta txiki bat eman nahi izan zioten kontu horri eta hauxe pentsatu zuten: eta gaia lantzen badugu materiala sortzen dugun bitartean? Eta horrela hasi ziren, 2022ko udaberrian, ordura arte falta ziren dozenaka landareren euskarazko artikuluak sortzen elkarlanean. Ikasleak, irakasleak, ikastetxeak, Txikipedia eta Ingurugela. Guztiak proiektu berean, ikasleak hozitzeko asmoz, Txikipedia loratzen amaitzeko.

Irungo Eguzkitza ikastetxeko lau ikasle, aukeratutako eremua aztertzen. GAUR8

ki bat sortu zuten, eskola inguruan edo Udalak eskainitako parkeren batean, esaterako. Eta bertan landareak loratzeko eta intsektuak erakartzeko irla txiki bat sortu zuten ikasleen begietara. Belarrari bere kasa hazten uzten zitzaion paradisu bat, eremu urbanoan. Eta landu zuten didaktikoki, EHUko Arantza Aldezabalen laguntzarekin, begiak zorroztu eta inguruan ditugun zelaien azterketa bat egiteko eta horiek ere baloratzeko behar zuten moduan. Hezkuntza zelaietara atera zen. Landareak ikusi eta aztertzeraz.

LANDARE ITSUTASUNA, ARGITZEN
Babesgune landareei begira,



ordea, zalantza handiak hasi ziren sortzen. Irakasleak zein ikasleak konturatu ziren, bertakoak, egunero ikusten zituzten landare (eta lore) horiek, behin baino gehiagotan nahi gabe zapaldu dituzten horiek, oharkabea pasatzen zirela haien begien aurrean. Ikusi ere ez zituztela egiten, itsu egongo balira bezala landareen munduaren aurrean. Materiala eskatu zuten, eta eman zitzaizkien baliabideak: mugikorrerako app-ak, gidaliburuak, webgune batzuk, eta... Txikipedia? «Txikipedian ez dago apenas landararik...».

Hala, Eskolako Agenda 2030aren ardura zeraman Ingurugelak, Aranzadiko Botanika Sailaren laguntzarekin, 120 espezie baino gehiagoren zerrenda osatu zuen. Ia guztiak bertako landareak: arruntak, mehatxatuak, urriak eta ugarriak, txikiak, handiak... Dibertsitate handiko zerrenda osatu zuten. Eta proposatu zitzaien ikastetxeei, lanketa egiten zuten bitartean, Txikipedia hornituko zuten landareei buruzko artikuluak ikasleekin osatzea. Nahi zituzten landareak hartzeko aukera izango zuten, baina bi izango ziren Txikipediara modu ofizialean igoko zirenak. Ikastetxe bakoitzak bi landare eskainiko zizkion gizarteari baita hezkuntzari ere.

IKASLEAK... ETA IRAKASLEAK

Gipuzkoako ia eskualde guztietan prestatu ziren formazio saioak. Eskolako Agendan parte hartzen zuten ikastetxeetako koordinatzaileen elkarguneetan, koordinazio bileretara gerturatu ziren Galder Gonzalez eta Aiora Mujika Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko lan-

Irakasleak, Arantza Aldezabal eta Maddi Artamendiren formazioan.
GAUR8



gileak, eta Txikipediaren erabilerari buruzko prestakuntza eman zuten. Horren ostean, 50 ikastetxek baino gehiagok eman zuten izena denen artean Txikipedia hornitzeko lanketan. Landareei buruzko artikuluak egitea bera izan zen irakasleak zein ikasleak bertako espezieetara gerturatzeko lehen pausoa. Eta egin ziren Txikipediarako artikuluak eskola txikietan, handietan, landa eremuko herrietan zein hirietan. Sarri landareen


gertutasuna norberaren begien arabera ere badelako, lekuarena baino gehiago.

Babesgune eta artikuluen artean ernatu zen ikasleen landareekiko kuriositatea eta hozitu irakasleek landareekiko itsutasunari buruz zuten informazio gutxia. Txikipediarekin elkarlanean sortu dira, geroztik, 85 landare espezieri buruzko artikuluak. Guztiak, ikasleekin eginak. Horietako asko eskola inguruan ikus daitezkeenak.

Urte hasierarekin batera 100 artikulura iritsiko da proiektua. Ikastetxeen arteko elkarlana sustatzea eta bultzatzea bide interesgarria da, ez soilik haien arteko harremanak aberasten dituelako eta lan egiteko modua partekatzen dutelako, baizik eta, ikasketa prozesuan txertatuz gero, gisa honetako emaitzak ere lor daitezkeelako, gizartearentzat onura sortuz eta hezkuntzarentzat interesgarriak izan daitezkeen materialak eginez.

ITSASOKO ARRAINAK ETA ENERGIA

Esperientziaren arrakasta ikusita, Ingurugelak eta Txikipediak elkarlanean jarraituko dute 2023an. Abenduan, jada, izan dira prestakuntzarako tarteak. Urtarriletik aurrera, Euskal Herriko “itsasoko arrainak” izango dira protagonistak Lehen Hezkuntzako umeentzat. Bigarren Hezkuntzakoek eta Batxilergokoek “energia” gaia, gaur egun pilpilean dagoena, izango dute Txikipediarako lan moduan.



Itsasoko arrainen proiektua ere elkarlanaren eredua da, eta hala egin nahi izan da adar asko enbor berari lotuz. Izan ere, begirada eta ikuspuntu ezberdinak dituzten adituak elkar-tzeak ekoizpen bereziak eta aberatsak sortzea ekartzen baitu. Kasu honetan, Txikipe-diak Euskal Herriko kostaldeko hainbat elkarte biltzen di-tuen Itsasoikorekin landu zuen bertako itsasoko arrainei buruzko ezagutza, espezieei buruzko artikulua sortzeko asmoz, hain zuzen ere. Horre-kin batera, EHUKo ilustrazio Zientifikoko Masterreko ira-ksleak eta ikasleak ere sartu dira proiektuan, eta haiek izango dira, zorroztasun zien-tifikoa oinarri hartuta, itsaso-ko arrainen ilustrazioak egin-godituztenak.

Azken pauso horretan, Ingu-rugelak Gipuzkoako ikaste-txeei zabaldu die proiektuan parte hartzeko aukera, eta



Ezkerrean, Zarauzko La Salle ikastetxeko ikasleak belardi batean lanean. Eskuinean goitik behera marigorringoa hosto gainean, alburnus alburnus espezieko arrain baten ilustrazioa eta ikasleek Txikipedian muki belarrari buruz sortutako fitxa. GAUR8 - Iñaki SANZ-AZKUE - TXIKIPEDIA

Ikasleen begiek inoiz baino atentzio handiagoarekin erreparatu zioten inguruneari, eta hor hasi ziren zalantzak. Landare itsutasuna ikusi (eta sentitu) zuten, alegia

Proposatu zitzaaien ikastetxeei Txikipedia hornituko zuten landareei buruzko artikulua ikasleekin osatzea, bakoitzak bi igoz; bakoitzak gizarteari eta hezkuntzari bi eskainiz

ikasleekin batera, gaia lan-tzeaz gain, Txikipedia osatuko duten artikulua egitekoa ere bai.

Irekitako bideak puntu in-teregarri asko sortu ditu, bai hezkuntza aldetik, bai lan egi-teko moduagatik edota hain-bat elkarte lotuz, nork bere es-perientziatik egin dezakeen ekarpena kontuan izanda, egin den apustuarengatik. Izan ere, haziari hozitzeko bal-dintza egokiak jartzen zaizkio-nean, loraketa errazago ematen baita.



ArtikuluakWikipekiak

ItakurriAldatuAldatu karrikara koderaItakurri itakurriaGehiago

Muki-belar

Itakurri itakurria

Muki-belarra (Pinguicula grandiflora) landare inibekijalea da.

Nolakoa da?

Landare txikia da, 12-15 zentimetro luze dituen, 1000-1500 mm luze dituen, oso antzekoak. Hostoak luze eta berde argi kolorekoak dira. Lore dotoreak ematez gain, hostoen gainean izaten duen mukiak ematen dio berezitasuna landare honi. Iza gainean zabaldua dituen hostoen gainetik igarotzen diren arteak mukiak itsatsita geratzen dira, ondoren hostoaren bi ikkinetarik erdialdera bida eta jaleko.

Non eta noiz aurki daiteke?

Europako banatarik dago. Ia eurpeko herri osoan hazten da, elorriko inguruetan izan ezik. Normalean, 600 eta 2300 metroko garaiera duen mendietan lopa daiteke. Gure mendietan 1000 m inguruan aurki dezakegu.

Neguan desagertzen da, eta azken elurak oraindik ikusten direnean berpizten da.

Hemen makiatzen eta ekainean loratzen da eta ohikoa da mendiko eremuko inguruetan ikustea, toki heze edo putzuz betetuta.

Zertarako erabili ohi da?

Ebakiak sendatzeko erabili izan da batez ere. Hostoak txikiak ondoren, zauri egin berrien gainean jarri ohi da.

Abereei ere jartzen zizaien muki-belarren hostoak zauriak sendatzen laguntzeko.

Europako iparraldean (Norvegia, Suedia...), hostoak esnea gatzatu edo mamitzeko erabiltzen da.

Esteka interesgarriak

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=jgUT3PPH1z0>

Txanxangorri aldizkaria: https://issuu.com/txanxangorri_albizkaria/docs/txanxangorri_56

Entzun!


Ba al dakizu

Sustatu eta hostoak dituen muki-belarra, baina hostoak dituen muki-belarra erabili izan da.



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



SORMENA LANTZEN

Abian da haur eta gazteei zuzendutako Elkar 15. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea helburu duen Elkar 15. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da jada. Aurten ere hiru modalitate antolatu dituzte, haur eta gazteen adinaren arabera: "Ipuina ilustratu", "Ilustrazioa ipuin bilakatu" eta "Komikia osatu edo ta hasieratik sortu".

"Ipuina ilustratu" aukeran HH4 eta LH4 mailen artean (biak barne) dauden haurrek har dezakete parte. Aurten, Esti Vivanco idazle bilbotarraren "Nora joan da Nora?" ipuina ilustratu beharko dute, Elkarren webgunean irakur daitekeena. Ilustrazioak A3 edo A4 formatudun orrian egin beharko dira eta margo mota eta teknika guztiak onartuko dira. Ohikoa denez, hiru adin tarte desberdinduko dira lanak aurkezteko: A maila (HH4 eta HH5, edo txikiagoak), B maila (LH1 eta LH2) eta C maila (LH3 eta LH4).

"Ilustrazioa ipuin bilakatu" modalitatea LH5 eta DBH2 mailen arteko gaztetxoei zuzendua da eta parte-hartzaileek Alex Orbe bizkaitarraren ilustrazioarekin ipuin bat osatu beharko dute. Euskaraz, ordenagailuz eta orrialde bakar batean idatzita egon beharko dute ipuinek, eta ezinbestekoa da idazlearen izen-abizenak, jaiotza-data, telefonoa, helbidea eta ikastetxearen izena zehaztea. Kasu honetan, bi maila egongo dira: D maila (LH5 eta LH6) eta E maila (DBH1 eta DBH2).

Azkenik, komikiei zuzendutako lehiaketan, DBH3 eta DBH4 mailetakoa ikasleek har dezakete parte. Aukera bat Alex Orbe hasitako komikiari

 **KULTURA / GAUR8**

«Ipuina ilustratu» atalean parte hartzaileek Esti Vivanco idazlearen «Nora joan da Nora?» ipuina ilustratu beharko dute. «Ilustrazioa ipuin bilakatu» eta «Komikia osatu edota hasieratik sortu» ataletan Alex Orbe ilustratzailearen proposamenak izango dira sormenerako abiapuntu. Iaz 9.000 lan baino gehiago aurkeztu ziren.



Goiko irudian Alex Orbek sortutako ilustrazioa, parte hartzaileek ipuin bilakatu behar dutena. Albokoan ilustratzaile bizkaitarrak proposatutako komiki hasiera. Eta behean 15. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketaren logoa. ELKAR

jarraipena ematea da, eta bigarrena, gaia mantenduz (auto-bus bidaia baten hasiera), komiki bat hasieratik sortzea. Komikiak eskuz zein ordenagailuz sor daitezke eta euskaraz idatzi behar dira, edozein teknika eta material erabiliz. Hori bai, lana A4 tamainako orrialde bakar batean entregatu beharko da eta hemen ere ikaslearen datuak gehitzea derrigorrezkoa da.

Lanak (gehienez ere bat pertsonako) apirilaren 20ra arte aurkez daitezke edozein Elkar liburu-dendatan utzita, postaz "Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa; Euskal kulturgintza S.A. Portuetxe 88 - 20018 Donostia" helbidera bidalita, edo ipuina edo ilustrazioa eskaneatuta eta postdata.elkar.eus atarira igota. Lehiaketaren oinarriak zein beste xehetasun guztiak atari horretan aurki daitezke.

Sariei dagokienez, Laboral Kutxa eta Irrien Lagunak babesleei esker, maila bakoitzean jolas sortak eta opari txartelak jasoko dituzte bi lan onenek, eta tabletak ere bai LH5 mailatik gorakoek. Ikastetxeentzako sari bereziak ere izango dira. Iaz, 14. ekitaldian, 9.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte orotara lehiaketan: 3.000 ipuin aurkeztu ziren, 5.800 ilustrazio eta 200 komiki inguru.



PLANETA, ARNAS GAIXORIK HANDIENA

Klima aldaketa eragiten duen kutsadura bera ari da planeta eta gizakiak gaixotzen, eta azkar gertatzen ari da

Klima aldaketa eta osasuna mahai gainean jarrita pentsa zitekeen bero ola-
tuek, denboraleek edo bestela-
ko muturreko fenomeno
klimatikoek osasunerako di-
tuzten ondorioak azaleratuko
zirela. Baina ez: kezka ez dute
fenomeno horiek eragiten,
edo ez horiek nagusiki. Izan
ere, klima aldaketaren eragi-
leak berak gaixotzen ditu giza-
kiak: kutsadura. Poluzio at-
mosferiko horrek, klima eta
ingurumen faktoreen arteko

harremanak, eragiten ditu gai-
xotasunak eta bera egoten da
horietako asko okertzearen
atzean. Azkar gertatzen ari da,
gainera, egokitzeko astirik ga-
be, adituen arabera.

Hausnarketa hori ondorioz-
tatu daiteke Bilbon aste hone-
tan bertan Bizkaiko Medikuen
Elkargoak antolatutako hitzal-
ditik. Publiko guztiari irekita-
ko baina, batez ere, osasun
munduko profesionalen zu-
zendutako saio formatibo ho-
rrek, besteak beste, osasun ar-
loko bi adituen hausnarketak
bildu zituen: Isabel Urrutia
neumologo eta arnas osasune

 **OSASUNA /** Nerea GOTI

Klimak eta ingurumenak inpaktu zuzenak dituzte osasunean. Harremana egiaztatuta dago, planeta gaixotu duen poluzioak pertsonen gaixotasunetan duen garrantzia ere egiaztatuta dagoen bezala. Neumologia eta kardiologia arloetako aditu bi bildu ditu Bizkaiko Medikuen Elkargoak gaiari heltzeko.

Isabel Urrutia,
neumologiako aditua,
Bizkaiko Medikuen
Elkargoak klima
aldaketak pertsonen
osasunean duen eragina
aztertze antolatutako
hitzaldian.
Aritz LOIOLA | FOKU

ko espezialistarenak eta Va-
nessa Escolar osasun kardio-
baskularreko adituarenak.

Urrutiak gogorarazi zuenez,
dagoeneko ebidentzia ugari
dago klimak, kutsadurak eta
gaixotasunak duten erlazioa-

ren inguruan. Neumologian
adituak 1952. urteko Londres-
ko gertaera aipatu zuen, adibi-
dez: 'Londresko lainoa', hain
zuzen ere. Gertakari hark zeri-
kusi handia izan zuen Lehen
Mundu Gerraren ondoren In-
galaterrako jende xumearen
etxeetan erretzen zuten kalita-
te txarreko ikatzarekin, batez
ere ikatz sulfuriko batekin;
«ikatz ona saldu egiten zu-
ten», zehaztu zuen.

Abenduaren hasiera zen, eta
berogailuetako konbustioaren
eta egun haietako laino eta in-
bertsio termikoaren ondo-
rioz «kontatzen dutenez, jen-
deak antzokitik alde egiten
zuen ez zutelako ezer ikusten,
lainoa barruraino sartzen bai-



tzen»-, milaka herritar hil ziren: 12.000 abendu osoan zehar. Hark kutsaduraren aurkako lehen akordioak ekarri zituela aipatu zuen medikuak. Haren ondotik, «ahal izan dugun guztia atera diogu planetari. Industria iraultzatik hona, batez ere, arnas gaixorik handiena bilakatu dugu planeta», nabarmendu zuen adituak.

HILKORTASUNAREN ERAGILEAK

Osasun Munduko Erakundeak (OME) bost arnas gaixotasun kokatzen ditu hilkortasunaren lehen hamar eragileen artean, eta kalkulatu du pertsonen %91k ez duela aire segurua arnasten, Urrutiak adierazi zuenez. Azpimarratu zuenez, «kutsadurak arnas gaixotasun guztietan eragiten du». Edo beste modu batean esanda, «ez dago kutsaduratik libratzen den arnas gaixotasunik».

Zelan egituratzen da hori guztia edo zelan funtzionatzen du? Berotze globalaren eta kutsaduraren arteko harreman horri dagokionez azaldu zuenaren arabera, «aldaketak dakartza klimaren patroietan eta muturreko fenomenoaren maiztasunean, eta horrek aldaketak dakartza kutsatzaileen kontzentrazioan eta ingurumen-alergenoetan».

Klimaren, alergenoen eta kutsaduraren arteko interak-

Klima aldaketak pertsonen osasunean duen inpaktuari begira, adituek adierazi zuten egiaztatuta dagoela osasunaren eta ingurumenaren arteko lotura

Nabarmendu zutenenez, ingurumenean zuzeneko eta zeharkako inpaktuak ikus daitezke, ez dira leku guztietan berdinak eta berriak ere azaltzen ari dira



Vanessa Escolar, osasun kardiobaskularreko aditua, astelehenean Bilbon eskainitako formazio saioan. Aritz LOIOLA | FOKU

zioak hilkortasun goiztiarren atzean agertzen diren elementuak dira, eta egoera hain da kezagarria, ezen OMEk berak permisibitate-maila jaitsi egin duen. Azalpen teknikoetan sartuta, oso era grafikoan zehaztu zuen neumologo bizkaitarrak material partikulatua dela arnas aparatuan eragiten duena, eta kaltea partikula horien tamainaren arabera izaten dela: «Batzuk eztarrira bakarrik iritsiko dira eta ez dago arazorik; beste batzuk bronkioetara iritsiko dira; beste batzuk, biriketako albeoloraino eta, partikula ultra-meheak zirkulaziora, eta aparatu kardiobaskularrari erasango diote, enbolioak produzituz».

Asma edota biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa bezalako gaixotasunak dira kaltetuenen rankingeko lehenak, arnas aparatuari dagokionez, baina ez bakarrik. Aditua ren hitzetan, haurdun dagoen emakumeak kutsadurekiko kontaktua izan dezakeenetik hasten da arnas kaltea.

BASERRIKO TXAPAK ETA ASMA

Eritasun horiek okertzeaz gain, beste era batera halako gaixotasunik izango ez lukeen jendearengan ere eragiten du kutsadurak; hain zuzen, gaixotasuna garatzen lagunduz. Beste fenomeno batzuk ere antzeman dira; adibidez, allergien arloan. «Ikusten ari gara alergenoei, kutsaduraren on-

dorioz, indartsuagoak direla eta, gainera, nolabait, txofer lanak egiten direla, polenak diesel partikuletan bidaiatu dezakeelako, eta nahasketa hori askoz kaltegarriagoa da», zehaztu zuen Urrutiak.

Arnasten denak izaten dituen ondorioen inguruan, baxerri eta etxe askotan biomasaren konbustioa egiten zuten txapekin ikusitakoa aipatu zuen. Ikusi zuten emakume asko zeudela asmatiko gisa etiketatuta, inoiz ere erre egin ez zutenak, baina biriketako funtzio baxua zutenak, eta gaztaroaz galdetuta, ikusten zen txapa horien inguruan jaio eta hazitakoak zirela, eguneroko bizimodua sukaldean egiten zen garaian, gainera.



Isabek Urrutiak erantsi zuenez, antzeko patologiak oso ohikoak dira Kolonbian, eta sakon aztertu dituzte.

KUTSADURA ETA HOTZA

Kutsadura-materia hori batez ere hauts, polen eta lizunetik dator; gehienbat, garraioaren isurketetatik, baita eraikuntzatik, industria arlotik, baso su-teetatik eta nekazaritza erreketatik ere, eta eragin zuzena du gaixotasun kardiobaskularretan. Kakulatzen da urtean 800.0000 heriotza goiztiar eragiten dituela. Mundu mailan, 13. hilkortasun kausa da, Vanessa Escolarrek emandako datuen arabera.

Kardiopatia iskemikoak, arritmiak eta bihotz-gutxiegi-

tasunak dira eragindako gaixotasun ohikoenak. Escolarrek esan zuenez, kardiopatia iskemikoetan, inflamazio sistemikoarekin lotzen da kutsaduraren eragina; kausa-efektu argia dago kutsadurarekiko esposizioaren eta arritmien artean, eta bihotz-gutxiegitasunari dagokionez, «pandemia handia» dela azpimarratu zuen osasun kardiobaskularreko adituak: «Kardiopatia askoren azken fasea da eta askotan hilkortasun kausa da».

Bizkaiko bi ospitaleek Bicontechen laguntza logistikoarekin egindako ikerketa mahai-gaineratu zuen Escolarrek. Azterketa AEMETen laguntzarekin egin zen, eguraldiarekin lotutako datuak alderatzeko. Izan ere, tenperatura eta bihotz-gutxiegitasunagatik ospitaleratze kopurua alderatu zituzten, adibidez. Ikusi zuteenez, tenperatura jaitsierarekin ospitaleratze kopurua igotzen zen. Ikertzaileek ikusi zuten bihotz-gutxiegitasunaren desoreka urteko hilabeterik hotzenetan pilatzen zela, abendutik martxora bitartean.

Horren azalpenari dagokionez, Vanessa Escolarrek adierazi zuen hori azaltzen duten hainbat teoria daudela. Zehaztu zuenez, negua arnas gaixotasunen gorakadarekin lotuta dago, eta bihotz-gutxiegitasunaren desoreka sorrera argi

Gaixotasun kardiobaskularretan ikusitako eraginez gain, arnas osasunaren alorrekoak ere aletu zituzten espezialistek, alergien atalean antzemandakoak aipatuta, adibidez

Alergien egutegia aldatzen ari da, hemen lehen ez genituenak agertzen ari dira, eta oro har, sentsibilitate alergiko handiagoa dago (asma eragiten duen faktoreetako bat)

batekin, baina tenperaturak eta hezetasunak organismoan eta bihotz-afekzioek sor dezaketan hantura-estadioarekin lotuta ere badago.

ZAZPI MILIOI HERIOTZEN ATZEAN

Adituak nabarmendu zuenez, Osasun Mundu Erakundeak berak ohartarazi du poluzio atmosferikoak zazpi milioi heriotza eragiten dituela urtean mundu osoan. Aipatu zuenez, munduko biztanleriaren %93ak arnasten du mugak gainditzen dituen airea, erakundearen datuen arabera.

Escolarren ustez, argi dago bihotz-patologiaren eta ingurumen faktoreen arteko harremana, eta horrek eragin zuzena du hiru bloketan: arritmietan, kardiopatia iskemikoetan eta bihotz-gutxiegitasun kasuetan.

Zehaztu zuen, gainera, eza-gunak direla gurean kutsatzailer nagusiak eta azufre dioxidoak eta nitrogeno oxidoak azpimarratu zituen.

Gure inguruan arnasten den aireari dagokionez, eta publikoaren galderei zabalduetako azken tartean, planteatu zen aire ez-garbia arnastera behartuta dauden herritar horien artean landa eremuetakoak ere kontuan hartzen ote ziren. Urrutiak aipatu zuenez, kutsadurari buruzko azkerketak konplexuak dira, haizea eta kutsatzen duten elementuak hartu behar baitira kontuan.

Horren ondoan, azaldu zuen adituak landa eremuan bizitokia daukan herritar batek, handik urrun, eremu kutsatuegi batean eman dezakeela denbora luzea, eta kasu horretan, hori ere kontuan hartu beharko litzatekeela.

POLUZIOAREKIKO ESPOSIZIO HANDIA ETA COVID LARRIAGOBAT IZATEA LOTUTA DAUDE

Klima aldaketak pertsonen osasunean duen eraginari erreparatuta, covid-en portaeran jarri zuen fokua Isabel Urrutiak eta Gurutzeta eta Galdakaoko ospitaleek Bartzelona eta Valentziakoekin batera egindako azterketa baten emaitzak nabarmendu zituen. Gogorarazi zuen txinatarrek izan zirela covid-aren zabalkundearen eta kutsaduraren mapak alderatu zituzten lehenak.

Ondorioztatu zuten poluzio handia zegoen lekuetan kutsatze kopurua handiagoa zela. Urrutiak onartu zuenez, populazio pilaketari ere egotz dakioke, baita estatus sozioekonomiko baxu batekin lotu ere, baina hemengo ikerketan ondorioztatu zen «aurreko urtean denbora luzez kutsadurapean egondako eta covid-arekin ospitaleratzten zituzten pertsonen kasuan, behin pneumonia zutenean, larritasuna handiagoa zela».

Urrutiak azaldu zuenez, poluziopean denbora luzea daraman pertsona baten erantzun immunean egoera berezi bat gertatzen da. Hain zuzen, handitzearen aldeko egoera sistemikoa ematen da: «handituta dagoen paziente bat da», azaldu zuen.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Borraska

Hazita datoz ibaiak, goseti. Mapetan marra urdin estatikoz marraztutako xirripak mugitu egiten dira etengabe; etxe, zubi eta petriliez zedarritutako ubideen kontra errebelatzen dira aldiro. Eta ibaiak harrotzen direnero bezala, oholez gotortutako ate eta

leihoak ikusiko ditugu etxabeetan. Garai bateko hondar-zaku eta dikeekin akordatzan naiz halakoetan, eta irudi-menak gudu-zelaietara eraman ohi nau. Badakizue: palakadaz palakada hustutako lurrean eraikitako lubakiak eta frankotiratzailleen miraila finarentzat zirrikitua ozta-ozta uzten duten leiho estaliak. Batzuetan munduak aldarrikatu gabeko gerrateak hasten ditu gure kontra, gutxien espero dugunean. Kaosetik borraska bakar batera bizi gara.

Eta horretarako aukera daukagunak teiltaperen batean gordeko gara. Haize-ufadek esnatuko gaituzte gauaren beltzean eta euria entzungo dugu pertsiana itxien kontra, indartsu, iazko uda lehorrean amorrua pilatzen aritu izan balitz bezala. Irratia piztuko dugu, musika pixka bat, ekaitza baino ozenago, ahal dela. Gure porlan, egur eta pladurezko gotorlekuetan giltzapetuko dugu gure burua. Tarteka telebista edo mugikorra piztu eta leiho seguru horretatik miatuko ditugu gure horma hauskorren beste aldeko irudiak: olatuek jipoitutako arrantza-ontziak portuan eta zuhaitz eroriak errepideetan; aterkiak jendearen eskuetatik ihesi eta elurak irentsitako mendi-bideak. Armairutik manta lodia aterako dugu, begietatik gorputz osora hedatu zaigun hotzikarak beharturik. Berogailuaren goxora hurbilduko ditugu gure gorputz ikaratuak.

Goxotasunak ez digu askorik iraungo, ordea. Antsiaz arituko gara gure eguneroko ordenatuan zeharkatzen ditugun lekuak kaosak nola irensten

dituen zokomiran: olatuek mehatxatutako malekoiak eta adar hautsien zaparradapeko plaza eta parkeak. Orain egun batzuk gure neurrira eginak sentitzen genituen lekuak. Gure espazio segurua txikitzen eta txikitzen ari dela ohartu eta are gehiago uzkuertuko dugu gorputza mantapean. Etxea bunker bilakaturik; ate eta pertsianak itxirik, pantailak leiho bilakatuko zaizkigu eta hortxe egongo gara, esperoan, ekaitza noiz pasako.

Eta jada hain sendo sentitzen ez ditudan horma hauen alde honetatik pentsatu dut hori bera dela "helduaroa" deitzen diogun urtaro lauso hau ere. Gure pentsamendu, uste eta aurreiritzien baitara biltzea, gero eta gotortuago, gero eta itxiago. Gure espazioa txikitzea, azal dezakegun horretara mugatzea, gure logikatik kanpo geratzen den oro mehatxutzat hartzea. Hauskortzen eta biguntzen doazen gure gorputz hauen hormak indartzea, fikziozko ordena baten menara biltzea, kanpoan haizea eta euria ate-joka ari zaizkigun bitartean. •



Ibaiak harrotzen direnean, gotorleku bihurtutako etxeetan ezkutatuko gara, gure baitara bilduak. Jon URBE | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

Ipurtargiak

Aurreko astean Danbaka musika lehiaketaren finalean egon nintzen: antolakuntza puntakoa izan zen, publiko asko eta –lehiaketa horren marka den– musika eskaintza askotarikoa. Final ederraz gain, gainerako emanaldietan Debagoieneko musika eskaintza aberatsaren lagin esanguratsua ezagutzeko aukera ezin hobea. Aukera, hiru arrazoiengatik: lehiaketa izateak kontzertuetara bestelako publikoa (ohitura ez duena) erakartzen duelako; agian, espresuki inoiz ikusiko ez zenituzkeen taldeekin topo egin dezakezulako eta, azkenik, Goienaren bitartekoei esker lehiaketako emanaldi guztiak (23!) telebistan zein interneten eskaintzen direlako.

Gauza batek eman dit zer pentsa: finalera heldu ziren hiru proposamenek (bakarlaria, folk zortzikotea eta rock-and-roll taldea) gaur egun gizartearen antza nagusi diren musika estilo moderno eta urbanoak ez ordezkatzeari. Egia da rap-ak eta, batez ere, reggaetoiak presentzia handia dutela gazteen egunerokoan; lehenak gehiago katean, eta bigarrenak, nabarmen, gehien ikusitako plataformetan. Halako handia da azken multzo horren bonbardaketa, ezen askotan pentsarazten baitigute gazteek ez dutela hortik kanpo musikarik entzuten.

Bada, urte bukaerako disko eta kanta zerrenda horietako bat egiterakoan berretsi dut gehien ikusitako plataformen bonbardaketatik at badirela punkaren aldeko hautua egiten duten gazte asko; ez hain agerian, eta ikusgarritasun txikiagoarekin, baina gogoz eta indartsu. Gazte belaunaldiak egarri daude eta, mitifikatutako hamarkadari bizkarra emanez, haien tamainako eta gaurkotutako moldeak garatzen dabilta, gaur egun dagoenak ez dituelako asetzen. Horren adibide dira Gipuzkoako kostaldeko Flash, Lekeitio aldeko Zikin, Donostialdeko Rekba eta abar.

Bestalde, gazteen artean iraunkortu eta berpiztutako moduagatik arreta pizten duen beste estilo bat Oi! edo street-punk delakoa da, hegemoniatik ia galbi-

dera eta berriro ere indartsu berregindakoa. Estilo horren baitan ere bada barrutik iraultzea lortu duenik. Horren baitan ezagutu ditugun betiko kliseetatik harago, musika, agertokia eta bizitza ulertzeko modu berriak sortzen dabilta, eta askoz basatiagoak dira, hardcorearekiko mugan.

Mendeku Diskak ekimenaren harira batzen dira street-punk berri horietako asko, eta aurretik Gernikan halako topagunerik egin badute ere, urtarrilaren 28an izango da horietako askoren eskaintza zuzenean bizitzeko parada Bermeoko Kafe Antzokian: Puro Odio, Ogro, Revertt, Cuero eta atzerriko hainbat talde izango dira agertokian.

‘Pop erradikala’ esamoldea ere aldarrikatzen dute gaur egun batek baino gehiagok. Horien artean ere badira ñabardura eta irakurketa desberdinak: esaterako, musika interpretatzen abilak izan arren, minimalismora edo sinpletasunera jotzen dute horietako askok. Familia horretan kokatu ahal da, adibidez, Tatzers talde gaztea. Eta ahots garden zein koru alaiak lantzen dituzten indie-pop proiektuen artean, esate-

Urte bukaerako disko eta kanta zerrenda horietako bat egiterakoan berretsi dut gehien ikusitako plataformen bonbardaketatik at badirela punkaren aldeko hautua egiten duten gazte asko; ez hain agerian, baina gogoz

rako, Kokoshka nafarrak ditugu: irribarrea une oro ahotan dutela, sistemaren arrakalak azalarazten dituzte eta barre egiten diote, gainera, inozentzia balitz bezala.

Hori guztia esanda, etorriko da hainbeste agorerok iragarritako eta gizartearen oinarriak hankaz gora jarriko dituen musika mugimendu berririk? Bada, ez bat, ez bi: hainbat izango dira, baina seguruenik horiek ez ditugu oraindik lehiaketa eta telebista platotan ikusiko. •

«Garai honi erantzungo dion eta erronka berrietara egokituko den herrigintza praktika bat behar dugu»

Bizi duen garaira lotutako herrigintza eta errealitateari zuzen erantzuten dioten politika publikoak. Uztarketa horretan ikusten du etorkizuna Sortuk, publikoaren eta komunitarioaren arteko elkarlanean. Zer gogoetatu badagoela konbentzituta, Plaza Hutsak hitzordua jarri du otsailaren 4an Burlatan.

Plaza Hutsaren beste edizio bat. Zein da helburua?

Duela urte batzuk Sortuk herrigintzari buruz gogoeta egiteko martxan jarritako espazioa da Plaza Hutsa. Aurtengoa guretzat berezia da bi arrazoiengatik; batetik, pandemiaren osteko lehenengo da eta hiru urteko eten baten ondoren dator. Denbora luzea daramagu esaten munduan aldaketa handiak ematen ari diren garaian gaudela eta pandemiak aldaketa horiek bizkortu egin dituela. Beti dauka zentzua herrigintzaren inguruan gogoeta egiteak eta orain, arrazoi horiek tarteko, are eta handiagoa. Garaiak eskatzen du une batez geratzea eta munduari begirada bat ematea.

Eta, bigarrenik, iaz Sorturen hirugarren Kongresua egin genuen eta horretatik gatoz. Erdigunean jarri genuen ideietako bat da herri honek Euskal Herritik Euskal Herrirako nazio bulkada bat behar duela, herrigintza erdigunean jarri behar dugula eta horretarako zenbait erabaki hartu genituen antolaketari begira. Batetik, Plaza Hutsa urtean behin egitea eta, bestetik, guretzat estrategikoak diren eremue-

tan sare bana antolatzeko konpromisoa hartzea.

Testuinguru horretan dator Plaza Hutsa eta bi helburu nagusi jarri dizkiogu: oro har, herrigintzaz gogoeta egitea, tarte bat hartzea herrigintzak estrategia independentistan eta estrategia independentistak herrigintzan zein leku daukaten hausnartzeko. Eta, bigarrena, eremu espezifiko bakoitzean ere gogoeta egitea bidea nondik egin beharko genukeen pentsatzen hasteko.

Hiru urteko etenaren ondoren dator, eta ez nolanahiko etena. Pandemiak gauza asko bizkortu ditu, beste asko apaldu. Herrigintza da Sortuk uneotan daukan kezketako bat?

Bai. Hainbat denborazkotasun nahasten direla uste dut. Batetik, pandemiarena. Pandemia batetik gatoz, denon bizitza zeharkatu du goitik behera eta horrek markatu egiten du. Baina, gure ustez, badago beste bat, luzeagoa edo zabalagoa, ziklo historikoarena. Ezker abertzaletik Euskal Herriari begiratuta, gure ustez, badago herrigintza aro bat, XX. mendearen erdialdetik aurrera herri honetan martxan jarri zena. Aro horrek izugarri eman dio herri honi. Herri honek bizirik irautea bera ere ezin da ulertu herrigintzatik egindako lan hori gabe, eta aitortza izugarria behar du. Eredugarria da munduan; Europa mailan gutxi izango dira pareko ehun soziala daukaten herriak.

Baina ikusten ari gara herrigintzaren aro horrek agorpen zantzu batzuk erakusten dituela eta jauzi bat emateko unean gaudela. Aldaketa handien garai horri lotuta, Euskal

Herrian herrigintza aro berri bat martxan jartzeko garaia dela uste dugu. Gure ustez, herri batek beti dauka ardura, beharra eta obligazioa etengabe garai berrietara egokitzen joateko, eta are gehiago, estaturik gabeko herria izanda.

Askotan eztabaida antzue-tan galtzen gara: lehen baino hobeto edo okerrago ote gauden, herrigintza itzalita ote dagoen... Eztabaida horiek ez garamatzate inora. Euskal Herria bere osotasunean hartuko bagenu, segur aski itzalaldi hori ez litzateke homogeneoa izango. Adibidez, azken urteotan Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian aurrerapausoak egin dira herrigintzan. Guretzat eztabaida ez da hainbeste lehen baino hobeto edo okerrago ote gauden: uste dugu agortze zantzuak daudela, baita kimu berriak ere. Une honetan garai honi erantzungo dion eta erronka berrietara egokituko den herrigintza praktika bat, herrigintza aro bat, behar dugu. Guretzat inoiz baino garrantzitsuagoa da herrigintza sustatzea eta garai berriek markatutako erronkei erantzutea. Eta uste dugu herri honek horretarako gaitasun nahikoa duela.

Indar komunitarioak aktibatu behar dira eta herrigintza praktika horiek politika publiko sendoekin josi behar dira. Indar horiek uztartu eta josiz gero, herrigintza aro berri bat martxan jar daitekeela uste dugu.

Batzuetan ez ote zaigun ahazten nondik gatozen, herrigintza zer nolako motorra izan den gure herriarentzat.

Guretzat eredugarria da azken hamarkadetan herri honetan egin dena, aitortza ikaragarria

XABI IRAOLA

SORTU-KO HERRIGINTZAKO ARDURADUNA

Otsailaren 4an Burlatan izango da Plaza Hutsa, herrigintzaren inguruan gogoeta egiteko plaza. Euskal Herriaren motor eta akuilu izan da herrigintza, herriaren nortasunaren marka. Baina garai batean izandakoak ez du balio egungoa astintzeko, pizteko. Gaur egungo munduari lotutako herrigintza aktibatze-ko garaia dela uste du Sortuk.



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

merezi du, eta horretatik irakaspén batzuk ere atera behar ditugu. Irakaspén horietako bat da herrigintza une askotan politika publikoen aurretik joan dela. Euskararen kasuan, adibidez, zalantzarik gabe herrigintzatik eman zaio bultzada; politika publikoak baino lehenago herrigintza hasi zen euskararen irakaskuntzari eta alfabetatzeari bultzada ematen. Edo azken urteei begiratu ta, pandemiaren gogorrean ere zaintza sareak herrigintzatik hasi ziren antolatzen. Zalantzarik gabe, herrigintza izan daiteke bideak ireki ditzakeen praktika bat.

Euskal Herria, nahi bada, anomalia politiko bat da; ez da ohikoa gure herriaren ehun soziala. Baina ezin gara bizi behin izan ginenaz edo behin egin genuenaz. Herrigintza praktika horiek etengabe eraberritzen joan dira, baina iruditzen zaigu berrikuntza ho-

«Mundua izugarri aldatzen ari da; edo gu egokitzen gara edo zenbait praktika zaharkituta geratzeko arriskua dugu. Belaunaldi bakoitzak dagokion tokitik, eskura dituen tresnekin eta bizi duen garaian bultzatzen ditu bere borrokak»



riek bizkortu edo aktibatu behar direla. Mundua izugarri aldatzen ari da; edo gu egokitzen gara behar berrietara edo zenbait praktika zaharkituta geratzeko arriskua dugu. Belaunaldi bakoitzak dagokion tokitik, eskura dituen tresnekin eta bizi duen garaian bultzatzen ditu bere borrokak. Bide horretan, gure belaunaldiari dagokion misioa ondo identifikatu behar dugu. Eta guk uste dugu misio hori estatu bat eraikitzea dela. Herri honetan hamarkada luzetan herrigintza eraikuntza eta erresistentzia uztartuz egin da eta orain dagokigun egitekoa hori da; herrigintzatik estatu bat eraikitzeako praktika garatzea, herrigintza eta estatugintza uztartuko dituen praktika bat garatzea.

Euskal Herritik Euskal Herri-rako nazio bulkada aipatu duzu.

Egiten dugunaren arabera izango da emaitza. Horregatik diogu ezin garela behin herri gisa izan ginenaz edo egin genuenaz soilik bizi. Zibilizazio krisiaren garai historikoan, ez da nahikoa orain arte egiten ari ginenaz. Sinetsita gaude herri-burujabetzaren aldeko ekimena biziberritzeak soilik eman diezaiokeela erantzun baikorra aro honi. Horrek, ordea, euskal egitasmo nazionalaren oinarri sinboliko eta materialak berritu eta nazio bulkada berri bat martxan jartzea eskatzen du. Herrigintza aro berri bat irekitzeko nazio bulkada, alegia.

Zertaz ari zara nazio bulkada diozunean?

Herri anbizioa igotzeaz, egitura nazional berriak sortzeaz, nazio harrotasuna berreskuratzeaz, eremuz eremu mugarri berriak jartzeaz, herri gogoa astintzeaz, herria aktibatzeaz...

Azken batean, Euskal Errepublikaren eraikuntzaren bidea urratzeko jauzi herrigile bat egiteaz ari gara. Jauzi, erresistentzian bizi den herria izate-tik aske bizi den herria izatera. Jauzi, katastrofismotik esperantzara. Jauzi, protesta hutsetik proposamenetara. Hori ez da bere kabuz gertatuko. Eragin egin behar da. Piztu.

Herrigintza. Horren baitan herria, herritarrez osatua. Herritar izateko modua ere aldatu da. Herrigintza aktibatze-ko traba ere izan daiteke hori.

Agian, bai. Horretan ere gure historiari begiratu beharko genioke. Euskal Herria herri ekintzailea izan da, gure DNAn egon da herrigintzarako joera hori, hainbat motatakoa gainera; odol emaille izatetik mugimendu feministan parte hartzeraino. Kontua da herrigintza gaur egungo jendarte moldeetara egokitzea. Bistakoa da herritarrak gaur egun parte hartzeko beste modu bat duela; jendeak gehiago parte hartzen du bere oso gertuko gaitan, oso dinamika puntualetan, kezka propioei leku egiten dieten mugimenduetan... Azkenaldian asko hitz egiten da ni-a eta gu-a uztartzeko moduez. Akaso gu-a oso presente egon den fase batetik gatz, kolektibotasuna gailendu den fase batetik, eta badirudi datorren korrontean norbanakoaren beharretan pisu handiagoa jartzen dela. Badirudi fase horretara goazela eta asmatu beharko dugu bide horiek ondo uztartzen. Zalantzarik gabe, gaur egungo dinamiketan norbanakoaren premiak eta kezkak kontuan hartu beharko dira, baina gaur egungo erronkei erantzuteko beharrezkoa da erantzun ko-

lektiboak asmatzea. Hor dago jokia: nola egin ni-a eta gu-a uztartu eta kolektibotasun berriak eraikitzen asmatzeko.

Horrez gain, aktibatzekeo deia egitea beharrezkoa da. Batzuetan badirudi Amazonen jendartean bizi garela. Etxeko sofatik telefono mugikorretik zerbait eskatu eta etxean jasotzera ohitu gara; jendarte horretan bizi gara. Amazonen lo-goak ere irribarre bat irudikatzen du. Baina guk garbi dugu herri libre bat eta zoriontasuna ez dizkigutela etxeko sofara ekarriko: horien bila joan beharko dugu. Aktibaziorako deia egin behar dugu, beraz; gogoratu gure historia, nola herri ekintzaile bat izan garen; gaur egungo jendartera egokitu; praktika militante berriak aktibatu; garbi izanez jendarte aske bat, justuagoa, libreagoa, zoriontsuagoa... horren bila joanez eta borrokatuz bakarrik lortuko dugula.

Sumatzen da joera bat gaur egungo egoerak, errealtateak, erabaki politikoak kritikatzekeo, baina distantzia batetik, parte hartzekeo intentziorik gabe.

Politika espektakuluaren parte bihurtzekeo arriskua ikusten dugu; nolabaitekeo hooliganismo politikoa zabaltzekeo arriskua. Norbere zilborrari begira egon eta kritika errazean erortzekeo arriskua dago, norbera bere lubakitik. Eta kezkatzekeo da hori, eragile sozialak eta elkartegintza ere gero eta gehiago daudelako nor bere zilborrari begira. Horrek bereziki kezkatzen gaitu. Inoiz baino gehiago politikaren garaia da, politika letra larritz egitekeo garaia; herrigintzatik egin behar den politikaz eta politika publi-



koez ere ari gara. Uste dugu biak beharrezkoak direla eta biak uztartzeko gai izan behar dugula. Hor dago, gainera, ezker independentistaren indarretako bat; politika instituzionalean indartsu dago, baita herrigintzan ere. Gu bietan gaude eta uste dugu guk egin dezakegun ekarpenetako bat hori dela, hain zuzen ere; politika publikoak eta indar komunitarioa uztartu eta hortik energia politikoak askatzea.

Indar komunitarioa diozu. Azkenaldian gertukoarte ezin ulertuak gailentzen ari ote diren...

Uste dugu gu bezalako herri txiki batentzat luxu bat dela jendarte eta herri espektatiba antzekeoak ditugunen artean liskarrean aritzea. Kezkaz bizi dugu zenbait eztabaidaren aurrean azkenaldian sumatzen dugun bandalismo mota hori; oso modu bortitzetan, ezkerretan, besteari gauzak leporatzea, baino norberak ardurak eta konpromisoak hartu gabe... Uste dugu gu bezalako herri txiki batean antzekeo espektatibak ditugunen artean adostasunak bilatu eta elkarlana sustatzeko gai izan behar dugula. Txikiak gara, txiki izaten jarraituko dugu, baina txiki askok elkarrekin gauza han-

«Batzuetan badirudi Amazonen jendartean bizi garela. Etxeko sofatik telefono mugikorretik zerbait eskatu eta etxean jasotzera ohitu gara. Baina guk garbi dugu herri libre bat eta zoriontasuna ez dizkigutela etxeko sofara ekarriko: horien bila joan beharko dugu»

herrigintzaren praktiketara gerturatzekeo. Bakoitzak ikusiko du nondik aritu nahi duen, baina hor dago politika egitekeo aukera. Denok dugu politika egitekeo aukera.

Herritarrak bere eragitekeo gaitasunean sinestea ezinbestekoa da herrigintza bizia egon dadin.

Bai. Ez dugu ahaztu behar herri honek herrigintzatik Lemoiz bezalako nuklear bat geratu duela; herri honek bi estaturen kontra armagabetze prozesu bat garatzea lortu duela; hainbeste urteren ondoren dispartzioa amaitzea lortu duela; Laborantza Ganbara bezalako proiektu bat sortu duela; Errigora bezalako ekimenak bultzatu dituela... Zalantzarik ez dago politikak eta herrigintzak emaitzak ematen dituztela eta borrokatzeak merezi duela. Horretan sinetsi behar da.

Baina arriskurik gabe, zikindu gabe, konpromisorik gabe, kontraesanik gabe, ez dago herri-rik. Aktibazio horrek zikintzera eraman behar gaitu. Ere-mu erosoetan geratzeko joera sumatzen da: 'Hau da nire iritzia eta eztabaidak hemen hasi eta bukatzen ditut'. Eta guk uste dugu politikan ekitekeo, aurrera urratsak egitekeo, agertoki berriak irekitzeko, ezinbestekoa dela arriskuak hartzea, konpromiso berriak hartzea, onartzea eztabaida askotan gure posizioak ez direla %100ean aurrera aterako... Baina uste dugu aurrera egitekeo modu bakarra hori dela. Guk ezker abertzale bezala apustu hori egiten dugu. Une honetan eragile izan nahi duen subjektua gara eta eztabaida guztietara konplexurik gabe posizio horrekin goaz; berdin hezkuntzaren eztabai-

diak egin ditzakegu; aldiz, elkarren kontra nekez egingo dugu ezer.

Azkenaldian zenbait eztabaidetan hezkuntzarena edo energiarena, kasu-, ñabarduren politikan gabiltzala ematen du. Politika letra larritz egin behar badugu eta gauza handiak egin nahi baditugu, ezinbestean ñabardurak alde batean utzi eta benetan batzen gaituen gauzetan jarri behar dugu indarra. Guk herrigintza hortik ulertzen dugu eta hortik nahi dugu egin.

Politikaren balio unibertsalena edo onena berreskuratu behar da, horretarako garaia da, norbere lubakitik atera eta

dara edo trantsizio energetikoaren era. Edo guk hartzen dugun lidergotza eta eragiteko proposamen batekin goaz, edo beste batzuek hartuko dituzte erabakiak eta askoz okerragoak izango dira. Horrek esan nahi du kontraesanak asumitzea? Bai, kontraesan asko asumitzea esan nahi du. Baina une honetan arriskuak hartu behar direla uste dugu eta gu arriskuak hartzeko prest gaude. Horretarako unea dela uste dugu.

Herrigintza eta politika publikoak uztartu beharra aipatu duzu. Horrek gobernantza modu berri bat eskatzen du, baita herritar izateko modu jakin bat ere, ezta?

Galdera bat: trantsizio ekologikoari soilik politika publikoen bidez erantzun ahal zaio? Edo, alderantziz, trantsizio ekologikoaren erronkari autosufizientziaren bidetik eta kultura aldaketa bat eginez soilik erantzun ahal zaio? Guk uste dugu ezetz, biak behar direla eta biak uztartzeko gai izan behar dugula.

Guk uste dugu ezker independentistatik une honetan egin dezakegun herrigintza praktika horrek zalantzarik gabeko ardatz publikoa eta komunitarioa uztartzeko gai izan behar duela. Eta horrek gobernantza eredu berri bat eskatzen du, eta eredu berri hori, gure ustez, baliagarria da erakunde publikoen eskala guztian. Guk udalgintzan daukagubatez ere indarra eta udalgintzan praktika horiek aurrera eramaten ditugu leku askotan; herritarrek udalgintzaren parte egin, horretarako espazioak sortu... Guk gobernatutako toki guztietan ahalegin hori egiten dugu; erakundeak eta herritarrek parez pareko

«Eremu erosoetan geratzeko joera sumatzen da: ‘Hau da nire iritzia eta eztabaidak hemen hasi eta bukatzen ditut’. Eta guk uste dugu politikan ekiteko, aurrera urratsak egiteko, agertoki berriak irekitzeko, ezinbestekoa dela arriskuak hartzea, konpromiso berriak hartzea»

espazioetan jarri eta politika publikoak garatzeko bideak jorratzen saiatzen gara. Eta uste dugu hori ez dela udalgintzarako alternatiba bakarrik; beste eskala askotarako ere balio du eta gobernatzaia iristen garen toki guztietan hori praktikara eramango dugu. Une honetako klabeetako bat hori dela uste dugu: ardatz publikoa eta ardatz komunitarioa uztartzen asmatzea.

Herrigintzan parte hartzeko prest dauden belaunaldi berriak badatoz?

Nik ez nuke gazteen gainean jarriko herrigintzan ditugun arazoen zama. Badago horre-

tarako joera eta ez zait egokia iruditzen. Hasteko, gazte kopurua jendartearen askoz txikiagoa da eta horrek eragiteko gaitasuna mugatzen du. Baina, hori kenduta, uste dut egungo gazteria aktiboa dela, hainbat molde eta problematiketan aktibatzen dela uste dut.

Herrigintzaren balioen lausotze edo lanbrotze hori jendarte osoarekin lotzen dut nik. Lehen aipatu dudana Amazon jendartearen haritik, badago joera bat gauzak egintzat ematekoa. Adibidez, Baztandarren Biltzarrean errelebo falta dagoela esan dute. Segur aski hainbeste urtez antolatu denez, askok egintzat ematen du

aurten ere norbaitek antolatuko duela. Horregatik da beharrezkoa etengabe herrigintza prestigiatzea eta nabarmentzea gauzak antolatzen eta egiten badira herrigintzari esker dela. Euskal Herria herri aktiboa dela esaten dugunean, ez da posturoa; herrigintzak urte askotan egindako lanaren emaitza da. Baina horrek berritze bat, prestigiatze bat eta aktibatze deia egitea eskatzen du. Maila batean Plaza Hutsa horretarako egiten da; batetik, herrigintza prestigiatzeko, daukan garrantzia emateko. Eta, bestetik, herrigintza aktibatze, indartzeko, sustatzeko. Gure apustua hori da.



SEI EREMU GOGOETA EGITEKO

Plaza Hutsan sei eremuren inguruan antolatuko da gogoeta eta bakoitzak tailer propioa izango du. “Ekologismoaren erronka Euskal Herriatik”, lehena: «Gure herriak mugimendu ekologista garaikide bat behar du». Bigarrena, “Hizkuntzaren auzia problematizatzen”: «Garaia da hizkuntza politika berriak martxan jartzeko, lurralde administratibo bakoitzera egokituak». Hirugarren tailerra, “Zor diguten bizitza feminisमतik irabaztera goaz”: «Feminismoak erronka ugari ditu, tartean, zaintza. Zaintza sistema publiko komunitario bat behar dugu». Laugarrena, “Euskal Hezkuntzaren eraikuntzarako ibilbidea zehazten”: «Saiatuko gara irudikatzen egungo hezkuntza sistemetatik eraiki nahi dugun euskal hezkuntza sistema publiko, euskaldun, feminista eta burujabe horretarainoko bidea nondik egin». Bosgarren tailerrak “Euskal Nazio proiektua eta migrazioa” izango ditu ardatz: «Beharrezkoa ikusten dugu ezker abertzaleak gai honen inguruan egiten duen gogoeta berritzea. Eta, azkenia, “Pobrezia eta bazterketa Euskal Herrian”. «Gero eta arrakala handiagoa dago aberatsen eta pobreen artean. Horri erantzun bat eman behar diogu herrigintzatik».

Baloia eta makillajea

Oihane
LARRETXEA DE LA
GRANJA

Duela zenbait aste, arratsalde-
ro bezala, alaba bere eskola
eguna kontatzen ari zitzai-
dala, xalotasun osoz esan zi-
dan, antza, neskek «ez dakigula» edo
«ezin dugula» futbolean aritu. Hala en-
tzun zuela, hala esan ziotela. Ez dakigula
edo ezin dugula, zer inporta du, bada?
Kasu bietan ezintasun bat leporatzera
baitatoz, egin dezakegunaz edo ahal du-
gunaz, gu gutxiestera, mugatzera, debe-
katzera. Harrituta, halako absurdo bat
nork esan zezakeen baino gehiago kez-
katu ninduen lau urteen atarian zegoen
neskatxa batek hori sinesteko izan zeza-
keen arriskuak.

Ezberdintasuna zein izan ote zitekeen
galdetuta, erantzunaren bila gelditu
zen, pentsakor. Inguratzen dituen muti-
koek zenbat hanka eta zenbat begi di-
tuzten galdegin nion orduan. Ispiluaren
aurrean jarri nuen eta galdera errepika-
tu nion. «Bi», berretsi zuen.

Euskadi-Txile partida ikusi genuen
gau hartan, eta interesak gehiegi iraun
ez bazion arren, nago ohartu zela gezu-
rra zela entzundakoa. Eta horrek balio
dit. Meltxorrek baloi bat ekarri dio eta
Zubietara joango gara emakumezkoen
entrenamendu bat ikustera.

Eredugarriak zaizkidan ereduen bila
nabil (zorionez, gero eta ugariagoak);

beste ereduak hatz bakarra mugitu ga-
be ailegatzen zaizkigulako, nola antza-
rari inbutuaz jatekoa.

Bere urtebetetzearen bueltan maki-
llaje jolas-kutxa bat oparitu diote. “Jo-
lasa”, baina makillajea azken batean.
Begietako itzalak, ezpainetakoak eta
esmalteak. Azken hau azkazalak jateko
duen joera urduria eteteko baino ez
zuen ezagutzen. Aurrena, haserrea. Ge-
ro, tristura. Hausnarketa falta izugarria
dario. Baloia kuestionatu eta margoak
luzatu. Bat ahalegindu arren su txikian
bere eredua eraikitzen, kanpotik erais-
ten digute kolpez. Aurpegia margotuko
dugu, baina otsailean Tolosan. •

Adimenaren aztarnak

Koldo SAGASTI

Margaret Mead antropolo-
go estatubatuarra ezagu-
na da, besteak beste, ira-
gan mendeko 20 eta
30eko hamarkadetan egindako ikerketa
etnografikoengatik. Behin, unibertsita-
teko saio batean, ikasle batek galdetu
omen zion zein ote zen, haren ustez, gi-
za zibilizazio adimentsuaren lehenengo
aztarna. Ikasleak esperoko zuen, segur
aski, maistrak amuari, goldeari, zorroz-
tarriari edo buztingintzari erreferentzia
egingo ziola. Baina ez. Meadek azaldu
zuen antzinako kultura batean agertuta-
ko lehenengo zibilizazio aztarna femur
orbaindu bat zela. Izan ere, animalien
artean hanka bat apurtzeak heriotza da-
kar, ia ezinbestean. Zangoa apurtu due-
nak ezingo du arriskuetatik ihes egin

eta harrapakin erraz bilakatuko da ingu-
ruko predatzailentzat, nekez iraungo
du bizirik hezurra sendatzeko adinako
denboraz. Aitzitik, berrosatzera iritsi
den femur batek erakusten du norbait
errukitu egin zela zauritutakoarekin,
zaindu eta lagundu egin zuela, haustura
orbaindu arte bizirik iraun zezan. «Elka-
rrekiko babesa, zailtasun batean dagoe-
nari laguntzea, horixe da zibilizazioaren
abiapuntua», baieztatu zuen antropolo-
goak.

Gaur egungo gizarte neoliberalean,
ordea, ustez zibilizatuagoak izanagatik,
badirudi elkar zaintzeak ez duela toki-
rik, eta besteekiko enpatia gutxiago
duena dela, hain zuzen, arrakastaz au-
rrera ateratzeko prestatuena. Horrega-
tik, beti sortu dit halako egonezin arra-

roa Eusko Jaurlaritzak “Euskadi, bien
común, auzolana” leloa erabiltzeak be-
re marketin kanpainetan. Kezkatu egi-
ten nau, besteak beste, osasun sistema
publikoaren, eta oro har, ongizatearen
sistemaren zutabeak deuseztatze-
ko estrategia deliberatua darabilten horiek
antipoda ideologikoetan zegoen pen-
tsalari batek sortutako kontzeptu bat,
elkarrekiko laguntzarena, berreskuratu
eta edukiz husteak. Nago femurra sen-
datzerainoko laguntza jaso zuen zorio-
neko aitzindari hark gaur egun Osaki-
detzako traumatologo batek arta dezan
sei hilabetetik gora itxaron beharko
balu, nekez iraungo lukeela bizirik zibi-
lizazioaren abiapuntuaren lehenengo
aztarna bilakatzeko. Euskadin elkarre-
kiko laguntzatik gutxi. •



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

«Meglio tardi che mai»: ezinbesteko telesail italiarrak

Esterno notte

FILMIN

2022an estreinatu zen ekoizpen hau. Marco Bellocchio zuzendariak telesailen mundura egin du jauzi, Aldo Moro-ren kasua jorratzeko, Italiako politika betiko aldatu zuen bahiketa politikoa. 1978ko Italian girotuta dago telesaila, eta herrialdearen azken urteotako gertakari garrantzitsuenetako bat azaltzen du; Brigada Gorririk (1969an sortutako Italiako talde armatu komunista) Moro bahitu zutenekoa. Mendebaldeko herrialde baten historian lehen aldiz, alderdi komunista batek babestutako gobernu boterera iristear dago. Eta Kristau-demokraziarekiko aliantza historiko bati esker gertatuko da hori. Aldo Moro, presidentea, akordioaren aldekoa da. Inbestidura egunean, ordea, Moro bahituko dute. Oihartzun handia izan zuen gertaera hark herrialdeko bizitza politiko eta sozialean. 2003an Bellocchiok berak “Buongiorno, notte” filmean kasu bera aztertu zuen arren, orain, ia hogeitaz geroago, istorioaren azterketa sakonagoa eta zehatzagoa eskaini digu. Telesail honi esker, Bellocchiok narratzaile bikaina dela agerian utzi du berriro ere, eta eszenaratzeko zehatzasuna alde batera utzi gabe, 70eko hamarkadako Italiako buru-hausgarri politiko korapilatsua xehatzeko abilezia harrigarria izan du. Kontakizunean kronologiak garrantzi

Egunotan erabaki dugu aurtengo udako oporraldian Siziliara joango garela. «The White Lotus» telesailaren bigarren denboraldiaren giroak kutsatuta edo «The Godfather» filmarekin dudak grinak bultzatuta akaso, baina kontua da hegazkina hartu eta Italiako uharte hori bisitatuko dugula udan. «Niri bost» pentsatuko duzu, ziurrenik. Lasai, sarrera honek badu-eta argibide bat: Siziliako mapa eta Italiakoa gainbegiratzen ari nintzen bitartean ohartu naiz oraindik ere ez dizuedala hain gustuko ditudan telesail italiarrei buruz hitz egin; «Meglio tardi che mai!» (hobe berandu inoiz ez baino).



berezia duen arren, egitura orokorra pertsonaietatik abiatzeak indar berezia ematen dio. Atal bakoitza gatazkaren barruko ikuspuntu bati buruzkoa da eta hainbat pertsonaiatan oinarrituta dago. Pantaila txikira jauzi egin duen arren, Bellocchiok berretsi du zinema egiten jarraitzen duela eta berea, nolanahi ere, sei orduko film bikaina dela. Bikaina.

1992, 1993 & 1994

FILMIN

Duela 20 urte, sistema osoa hankaz gora jarri zuten ustelkeria kasuak azaldu ziren Italian. 1992an hainbat epailek osaturiko “Esku Garbiak” izeneko taldeak alderdi politiko nagusiak eta enpresa garrantzitsuak inplikatu zituen eroskerien kontrako makro-prozesu batean. Mugimendu horri

‘Tangentopoli’ deitu zitzaion (eroskerien hiria). Hala, 4.000 enpresari eta ehunka politikari epaitu zituzten Antonio di Pietro fiskalak gidatutako prozesuan.

Eskandalu hori guztia pantaila txikira moldatu dute telesail bikain honetan. Betiere, objektibotasun maila altua eskainita. Ibilbide narratibo guztia pertsonaien bitartez irudikatzea erabaki dute, eta horixe da, nire ustez, telesailaren euskarri sendoa. Benetako pertsonaiak eta fikzioarako sorturikoak tartekatuz, Giuseppe Gagliardi zuzendariak oreka bikaina lortu du, fikzioaren eta esparru historikoaren nahasketa biribila sortuta.

Dokumentazio ariketa bikain bezala ere, ezin hobeto funtzionatzen du telesailak. Horren eredu, garai hartako erreferentzia politikoak eta telebistako eguneroko programazioaren isla. Ikusten dugun guztia, gainera, sentitu egiten dugulako. Argi dago, bestalde, telesailak ezin direla girotze on batean soilik oinarritu, eta telesail hau ez litzateke hain ezinbestekoa izango haren gidoi goren eta eraginkorrarengatik ez balitz. “1993” eta “1994” honen jarraipena dira.

Strappare lungo i bordi

NETFLIX

Zerocalcare komikigile italiarrrak sorturiko animaziozko telesail zoragarria da honako hau. Erritmo bizikoa, bizitzari



eta egunerokotasunari buruzko bakarriketen bilduma txundigarria iruditu zait. Telesaila jada ikusi baduzu, osagarri modura jakin Farmazia Beltza argitaletxeak euskarara itzuli zuela “Macerie Prime” komikia hiru liburukietan: “Hondamuinean” (2018), “Hondamuinean 2: 6 hilabete geroago” (2019) eta “No sleep till Shengal” (2022).

Zerocalcare komikigilearen bizipenetan oinarritutako helduentzako animaziozko telesaila da. Erromako marrazkilaria gazte bat, gizarte-kontzientzia oso sakonekoa eta armadilo erraldoi bat kontzientziatzat duena –ongi irakurri duzu, bai–, eta tartean beste hainbat pertsonaia sartzen direla, bere bizitza-ibilbideaz eta maitasunaz hausnartzen ari da hiritik kanpo bidaiatzen ari den bitartean. Animazioa mezu garrantzitsuak zabaltzeko erreminta oso eraginkorra izan daitekeela agerian uzten du telesailak: umorea helduleku gisa erabiliz (ekoizpen oso irudimentsua izateaz gain) eta erabat lur jota utzi nauen amaiera horren bidez (mezu oso bortitza eta beharrezkoa plazaratzen duelako). Guztia ez baitira barreak, telesailak hunkiberatasunerako tartea ere eskaintzen duelako, urrezkoa den gogoeta sorta bate-



kin. Maisuki eta era oso originalean belaunaldi jakin baten erretratu oso zehatza eta gordina egin duela uste dut. Animazio-estilo aldetik jariatzen duen sinpletasun horrek mezu nagusiari garrantzi handia ematen laguntzen du, eta gidoia edozein pertsona identifikatuta sentitzeko moduko egoerez beteta dago; oso umore garaikidea dago eta narrazioa azkarra da.

The Young Pope & The New Pope

HBO MAX eta AMAZON

2016a gogoan izan dugu beste zinemagile ezagun batek, Paolo Sorrentino italiarrak, pantaila txikira salto egin zuelako urte hartan. HBO, Sky Italia eta Canal+ en arteko

ekoizpen honek Leny Belardo (“Jude Law”) Pio XIII. aita santu izendatu berriaren istorioa kontatzen du: 40 urte eskas ditu eta AEBtako lehen aita santua da. Lehen bi atalak, gainera, Veneziako zinema jaialdian aireratu zituzten, txalo zaparrada ugarien artean. Hasierako minutuetan, Leny Belardo lehen diskurtsoa prestatzen ari dela ikusiko dugu. Urduri sumatzen zaio, inork ez baititu aita santu berriaren printzipio eta balioak ezagutzen. Vaticano-ko balkoian jarri orduko, imintzio eta keinuak eginez, askatasunaren aldeko diskurtsoa egiten hasiko da, Tom Cruisek “Magnolia” filmean egindakoaren parekoa ia-ia. Sexu bereko erlazioen aldekoa dela esanez, abortua, sexu librea eta masturbazio po-



sitiboak direla esanez... Batabatean, irudia moztu eta Jude Law ohean ikusiko dugu eta ohartuko gara dena ametsa besterik ez dela izan. Ametsa, agian, baina telesailaren nondik norakoa zein izango den eta batez ere nolako aita santua aurkeztu diguten jakiteko balioko du. Hortik aurrera, Erromako kuria barruko guda politiko moduko bat hasiko da. Badakit gaiak nagitasun ikaragarria sortzen duela eta agian ez zarela gerturatu ere egingo. Baina amore ematen ez duen aita santu ikusteko aukera hau oso interesgarria iruditu zait; haurtzaroan gertaturikoaren aurka eta hainbat momentutan Jainkoarengan sinesten ez duela esanez. Sorrentinok hain berezkoa duen estetika

zoragarri horretaz baliatuz eta hizkuntza zinematografiko oso aberatsa erabiliz, ezinbesteko telesail bilakatu da, zalantzarik gabe. Osagarri horiekin guztiekin zuzentasun ezaren bankete bat ikusteko aukera izango duzue. “The New Pope” izeneko bigarren zatian ere osagarri horiek topatuko dituzue.

GOMORRA

HBO MAX eta DISNEY PLUS

Bost denboraldi, 58 atal, telesail biribila. Italian egiten ari garen bidaia honen barruan, izenburu bakarra aukeratu beharko banu, “Gomorra” izango litzateke. Ikusi ez duzun telesailik onena izan liteke, ziurrenik, eta Italian inoiz egindako onena. Letra larritz



idatzitako maisulana. Roberto Savianoren liburuaren eta 2008ko filmaren ostean, Napoliko Camorraren bizitza azalarazten duen telesail ikaragarri hau estreinatu zuten. Akzioa, suspensea, tiroak, traizioa, beldurra... Lehen ataletik harrapatuko zaitu telesailak. Napoliko talde kriminalari buruzko erradiografia izugarria izateaz harago eta Savianoren kazetartiza-lanaren egokitzen gorenaz izateaz gain, batez ere giza izaerari buruzko telesaila dugu honako hau. Gidoi bikaina, biraketa ugari eta, inongo zalantzarik gabe, azken urteetako ekoizpen sendoenetakoa.

La meglio gioventù

1960ko hamarkadaz geroztik Italiako familia baten istorioa

azaltzen duen sei orduko telesail laburra edo film bikoitza. Nicola eta Matteo helburu eta ametsak partekatzen dituzten anaiak dira. Liburu berberak irakurtzen dituzte eta lagun berez gozatzen dute. Giorgia izeneko neska bat ezagutzen dutenean, ordea, guztia aldatuko da. Nicola psikologo lanean hasiko da; Matteok, aldiz, ikasketak utziko ditu eta polizia-taldean sartuko da. Belau-naldi baten erretratua eskaintzen du telesaio labur berezi honek: mundua hobetu nahi duen belaunaldi bati buruzko istorioa. Italiako historia errepasatzen duen bitartean, Italiako familia batek lau hamarkadatan bizi izandakoa kontatzen du.

Hiru orduko bi zatitan banatuta, Bertolucci "Novecento"-rekin egin zuen moduan, Mar-

co Tullio Giordana italiarrak bere herrialdeko azken hamarkadetako kronikari bikaina dela argi utzi du. Iraupen luzeak izan arren, telesail labur edo film miresgarri eta zirraragarri hau, bereziki bigarren zatia, ez da inoiz ere astuna egiten, pertsonaiek eta kontatutako gertakariak interes handia pizten dute eta.

ZeroZeroZero

Narkotrafikoaren inguruko telesailek, normalean, nahiko ikuspegi itxia eskaintzeaz gain, arazoaren fokua toki jakin batean soilik kokatu ohi dute. Ekoizpen italiar honek prismatikoak urrunago ipini eta drogaren negozioari buruzko erradiografia aparta egitea lortu du. Horretarako, hiru fase erakusten dizkigu telesailak: salmenta (Mexikon), erosketa (Italian) eta banaketa (AEBetatik ateratzen den itsasontzia). Maisuki jotzen du ikuspuntu desber-

dinek eskaintzen dutenarekin eta, gurutzatzen diren istorioen mamia erabilita, gidoi oso eraginkorra osatzea lortu dute. Mexikon, AEBetan, Marokon, Senegalen eta Italian filmatutako telesail ilun, bizi eta xurgatzailea. Amazonen mundu-mailako "Narcos" bezala definituko nuke.

L'amica geniale

HBO MAX

Hainbeste telesail ditugu eskura, ezen ezinezkoa baita Hollywoodeko fokuetatik at kokatzen diren eta, gainera, denboraldi bat baino gehiago daramaten telesailetakoz batzuk ikusle orokorrari iristea. Horren adibide argia da "L'amica geniale". Elena Ferrante idazlearen liburu ezagunak moldatu dituen fikzio honek joan den mendeko 40ko hamarkadako Napoliko auzo xume batera garamatza hasieran. Han, bi lagun hazi dira: Lila eta Lenù. Bi neska adi-

mentsu eta langile dira, baina familia pobreetan jaioetakoak. Bizitza paraleloan garatzen dute, eta miseriatik ihes egiten saiatzen dira, ikerketaren eta fantasiaren bidez. Saverio Costanzok maisutasun narratibo handiz zuzendu du telesail hau, eta aktore-taldea osorik nabarmenduko nukeen arren, aktore protagonistak gailentzen dira bereziki. Max Richter handiaren soinu banda ere txalotzeko modukoa iruditzen zait. Jariatzen duen hunkiberatasunagatik, edertasun estetikoagatik, egiazkotasunagatik eta interpretazio bikainengatik biziki gomendagarria da.

Romanzo criminale

"Romanzo criminale" eleberri ezagunaren egokitzena, Magliana bandaren zabalkundea eta gainbehera kontatzen dituen. 70eko hamarkadaren amaieran Erroman narkotrafikoa menderatu zuten gazte batzuek osatu zuten talde hura, eta Mafiarekin, Camorrarekin eta Italiako Zerbitzu Sekretuekin ere loturak izan zituzten. 70eko hamarkadako Erromako giro paregabeari esker, errealismo izugarria jariatzen du telesailak. Akzio-eszenak oso ondo filmatuta daude, eta genero honetako benetako gertaeretan oinarritutako istorio on baten osagarri gehienak topatuko dituzu bertan: aliantzak, traizioak, maitasuna, polizia-ikerketak, ustelkeria... Telesaila 2008. urtekoa da, eta alor batzuetan apur bat gaizki zahartu izanaren sentsazioa ere izan dudala aitortuko dut: genero ikuspegia, pertsonaien garapena, elkarrizketa batzuk eta abar.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Pentsatzeko denbora galtzen ari gara

Covidaren ostean hasi genuen lana egiteko modu hibridoa ezartzeko fase horretan arrakala berriak azaltzen ari dira. Hibridoa diodanean, ez naiz leku fisikoaz (etxean edo bulegoan) bakarrik ari, baizik eta zer egiten dugun leku bakoitzean: zertarako den bulegoa eta zertarako etxea; nola mantentzen eta indartzen ditugun jendearen arteko harremanak; nork definitzen dituen arau berriak; nola aldatzen dugun kultura.

Badira printzipio zurrunik hartu dituztenak: bulegoak guztiz itxi dituzte eta langile bakoitzaren esku utzi dute lana nondik egin erabakitzea; edo berriro ere bost egunetan lantokira joatera “behartuta” daudenak (finean, ez zituzten kontratuak aldatu eta hori dio legeak modu atzerakoien).

Erdibidean gelditu direnen artean, estrategia ezberdinak ikusten dira sektore eta kultura bakoitzaren arabera, gehienetan ahalik eta justuena izateko edo egoera berriaren onurez disfrutatzeko helburuarekin. Hala ere, dakigun horretara joateko inertiak irabazten ari dira kasu askotan. Aste honetan irakurri dut hainbat jende aurreikusten dutela, 2024. urterako, “lau egun bulegoan, bat etxean” izango dela gehiengo handi batentzat norma berria.

Gogoan dut nire lantokian egin zen lehenengo aldaketako bat mahai kopurua murriztea izan zela: jendea bulegora joatean zenean, Zoom edo bideokonferentzietan egotea ez zen lehentasuna eta horretarako ez zegoen mahai indibidual haien guztien beharrik. Eta, aldiz, bilera gelak handitu zituzten jende gehiagorentzat egokitzeko; espazio ireki gehiago sortu, kolaborazio sustatzeko, kafe lekuen kopurua ere handitu baita. Horren eragina neur-

tzea, noski, ez da hain erraza, edo subjektibotasunean edo inkesten emaitzetan harrapatuta gelditzen gara. Batzuek diote sormenaren kalitatea hobetu dela eta horrek negozioan eragin positiboa duela. Orduak pasa genitzake hori eztabaidatzen. Gai hori eztabaidagai izatea aurrerapena dela iruditzen zait niri.

Beharrezkoak ez diren konferentzia deiak agendan jartzearen fenomeno horretaz aritu ginen aste honetan zuzendari-tzan. Badirudi ezinbestekotzat daukagula bata bestearen atzetik datozen bilerak izatea. Hogeita hamar minutukoak ziren hasieran; orain hamabost minutuko bilerak ere azaltzen hasi dira.

Jendearekin “konektatzeko” gailu bezala erabiltzen ditugu askotan. Deserabiltzen ari garela ohartu gabe. “FOMO” deitzen diogu Ingalaterran. *Fear Of Missing Out*. Alegia, ez

bazaude bilera jakin batean edo ez baduzu pertsona bat bi egunez behin ikusten, zer-bait galtzen ari zareneko sentsazioa sortzen zaizu, hiperkomunikatzeko beharra ren eraginez: besteek jakin dezaten zertan ari zaren lanean eta han zaudela (existitzen zarela, alegia, etxean bazaude ere).

Baina, egunero hogeita hamar minutuko hamar bilera baditugu, noiz hartuko dugu denbora pausa egin eta pentsatzeko? Pentsatzeko kalitatezko denbora galtzen ari gara.

«Esperimentuak egingo ditugu», esan zidan nirekin lanean dabilen *coach* batek. «Asteazken eta ostiral arratsaldeetan debekatu egingo ditugu enpresa barruko bilerak, eta horrela ez da FOMO-aren beldurrik egongo». Ironikoa, ezta? Askatasuna eman zaigunean gure denbora nahi dugun bezala antolatzeke, erregelak inposatzera jo dugu. •



Badirudi etengabe bilerak egiteko beharra dugula Dan DALTON | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



J.J. KILLELEA & CO. AEB-ETAKO KONGRESUAREN LIBURUTEGIA

BILBOKO ARRIAGA INGURUAK XX. MENDE HASIERAN

Bilboko Arriaga antzokia 1890eko maiatzaren 31n inauguratu zuten. 1914ko abenduaren 22an sutea piztu zen bertan, zarzuela konpainia bat oholtzan lanean ari zen bitartean, eta 1919ko ekainaren 5era arte ez zuten antzokia berriro inauguratu.

Artikulua ilustratzen duen irudia harrigarria da, 1908an egina dago eta Bilboko Arriaga antzokiaren atzealdea ikusten da bertan. Irudiaren erdian haur batzuk eta,

ez oso urruti, txerriak lurrean mokoka. Azoka eguna? Atzealdean, eskuinean, tranbia bat eta Areatza. Ezkerrean, Evaristo Txurrukak bi ertzetan egin zituen portuen ertz bat ageri da. Gaur egun, bi geratzen dira Sendejan. Arriagaren ondoan Antzokiko Kaia izeneko zegoen, banaketa azkarreko salgaiak jasotzen zituen. Irudi hau New Yorkeko “Union Photographic” konpainiak merkaturatu zuen formatu estereoskopikoan.

ireki gure leihoa



GAUR8

